

Arbizuko XVII. duatloia bihar jokatu da



Kirola >> 11

Sakanako Ibilaldi Handiaren 24. edizioaren txanda bihar. 400 mendizalek eman dute izena dagoeneko



Kirolak >> 13

Berri onak industriatik



Sakana kooperatibak Siemensekin urte baterako akordioa sinatu du. Bestalde, hiru enpresek 15 lanpostu sortuko dituzte. UTZITAKOIA

>> 3

Udal aurrekontuko 20.500 euro zertara bideratu erabakitzena

Irurtzundarrek igandera arte dute proposatutako lau proiektuen artean bat aukeratzeko

>> 5

Euskararen erabilera sustatzeko Mank-en laguntza deialdia

Euskara talde eta ikastetxeei zuzendutako deialdietan eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 15ean despedituko da

>> 7

Satrutegiko sareak eta zorua berritzeko eskaera

Arakilek premiazko eskaera egin du

>> 8




Maiatzak asteazkenean zutituko dituzte

>> 7



Herri baratza aurkeztu dute Etxarri Aranatzen

>> 5



Etxebarriak Meulnes handia itzuli du

>> 15



Zabaletaren finala. Arakildarren babesaren izan du pilotariak

>> 10

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Nerea Mayo Razkin

Apirilaren 17an 7 urte bete zenituen, ZORIONAK gure etxeko printzesari!!! Ongi ospatu genuen, el! Muxu handi bat etxekoan partez.



Oinatz eta Iraitz

ZORIONAK bikoteeee!!! Aurten bat geyo eh? Iye guaikuen fundamentu pixkat geyo sartzen dakizubien, jajaja!!! Ongi pasa zuen egunek ta muxu pillat etxekuen partez.



Oinatz

8 zaplastako?? Ai, ez, ez, 8 muxu!!! ZORIONAK morrosko!!! Ongi pasa eguna, etxekuen partez!!



Jorge Azanza

Animo Italiako giroan zure jarraitzaile guztien partetik eta segi orain arte bezelako lan ona egiten!! Gure oi huak gertutik entzungo dituzu. Animo Jorge!!



Julen

ZORIONAK!! Oso egun polita pasa dezazula!! Muxu asko, zure aitaldeko aitona-amonon, osaben eta lehen-gusuen partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

apiribilak-maiatzak

26-3

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Zuloak+Stupenda Jones. Apirilaren 26an, ostiralean, 22:30etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean. **OGA.**

Aizpe Taldea. Apirilaren 28an, domekan, 19:30ean Altsasuko elizan.

Antzerkia

Kaka burutik behera. Apirilaren 27an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Javier Esteban, Ainhoa Juaniz eta Isabel Azpiroz.**

Zinema

El lado bueno de las cosas. Apirilaren 26an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 28an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.


Oz, un mundo de fantasía. Apirilaren 28an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ipuin kontalaria

Zuhaitz ipuin kontalariak. Apirilaren 26an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Lur Usabiaga.**

Dokumentalak

Etorbizuna erraustuz. Apirilaren 26an,



ostiralean, 19:00etan Bakaikuko udaletxeko areto handian.

Apaizac obeto. Apirilaren 30ean, asteartean, 17:30ean Lakuntzako udaletxean.

Mendi irteera

Sakanako ibilaldi handia. Apirilaren 27an, larunbatean, 6:00etatik aurrera Irurtzundik abiatuta. **Iratxo elkarte.**

Hiru mendizerrak. Apirilaren 28an, domekan, Altsasuko Mendizaleak taldearen egoitzatik. Bazkideendako.

Kontrabandisten ibilbidea.

Maiatzaren 1ean, asteazkenean, Altsasuko Mendizaleak taldearen egoitzatik.

Txirindula irteerak

Urkillia mendizerra. Apirilaren 28an, domekan, 7:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 70 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Erakusketak

Autopista elektrikorik ez! Apirilaren 22tik 28ra Iturmendin. **IGA.**

Oihanetik itsasora. Apirilaren 30ean,

asteartean, Lakuntzako udaletxean.

Uraren gazte foroa. Maiatzaren 5era Altsasuko Iortia kultur gunean. **Aralarko Mikel Donea I BHiko ikasleak.**

Hitzaldiak

Autopista elektrikorik ez! Apirilaren 26an, ostiralean, 19:00etan Iturmendiko auzogelan. **IGA.**

Etorbizuna ikusteko dago: badaude alternatibak. Apirilaren 30ean, asteartean, 11:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Hizlaria Henrike Galartza (NUP). **Sasoa.**

Mahaingurua

Euskararen erabilera. Apirilaren 2an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean.

Tailerrak

Konpostatzen ikasteko ikastaroak. Apirilaren 26an, ostiralean, 11:00etan eta 16:00etan Uharteko Arakilen eta 19:00etan Errozko kontzeju etxean. Apirilaren 29an, astelehenean 10:00etan eta 19:00etan Arruazuko udaletxean eta 19:00etan Lakuntzako udaletxean. Apirilaren 30ean, asteartean, 10:00etan eta 19:00etan Lakuntzako udaletxean eta maiatzaren 2an, ostegunean, 10:00etan eta 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Adimen emozionalaren bidezko heziketa. Apirilaren 26an, ostiralean, 9:30etik 11:00etara Olatzagutiko Akelarre ludotekan.

Nekazaritza ekologikoa. Maiatzaren

2an, ostegunean, 16:00etatik 19:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Ernairen aurkezpena. Apirilaren 26an, 20:00etatik aurrera Altsasuko Iortia kultur gunean.

Elkartasun eguna. Apirilaren 27an, larunbatean, 11:30etik aurrera Etxarri Aranatzeko **Herrira.**

Rocopolisera. Apirilaren 27an, larunbatean, 17:00etatik 21:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunetik. 12 urtetik aurrera.

Deialdiak

Mutualitateak kapitalismoaren morroi. Gure osasun ereduaz guk erabaki. Apirilaren 26an, ostiralean, 12:00etan, Altsasuko Mutua Navarra parean. **LAB.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 26an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaraztea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 28an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaraztea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Apirilaren 29an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Borrokatu, matxinatu eta irauli Euskal Herria. Maiatzaren 1ean, asteazkenean, 12:00etan Altsasuko Foru plazatik. **LAB.**

Apirilak 27 larunbata

ELKARTASUN EGUNA '2013 ETXARRIN

10:00etatik 13:30era Puzgarriak eta umeentzako animazioa

13:30etatik 14:30era Bertso Saioa: Eneko Lazkoz - Xabier Silveira - Josema Leitza - Jokin Uranga

14:30etan Herri Bazkaria (Txartelak Xapateron eta Lekuonan salgai)

18:00etatik 19:30era Herri Kirolak: Etxarri- Arbizu- Lakuntza- Altsasu

20:00etan **MANIFESTAZIOA**

21:00etatik 02:30era **TXIMELETA**

ETA EGUN OSOAN ZEHAR: Argazkiak, Sakanak, Hartutakoak, Zuzenekoak, Taldeak, Txanponak

Herria

Udaberriko argazki lehiaketa

>> Saria: **SAVÁN** informatikak eskainitako **liburu digitala**

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan beharko dira.** Argazkilarik bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri beharko dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

LH INSTITUTUAK IZENEZ ALDATU DU:

Altsasun dagoen Lanbide Heziketa institutuko eskola kontseiluak izena aldatzea proposatu zion Departamentuari, eta

azken horrek onartu. San Miguel de Aralar II izena FP Sakana LH Bigarren Hezkuntzako Institutuagatik aldatu da.

ezkaatza >>

>> Irurtzun / Olatzagutia

15 lanpostu berri sortu dituzte 3 enpresek

3.012.561,4 euroko inbertsioa egin dute eta 602.512,28 euroko laguntza eman die Nafarroako Gobernuak, hau da, %20

Sakanako hiru enpresa txiki edo ertainek jaso dute Nafarroako Gobernuaren laguntza. Enpresa mota horrek kreditua eskuratzeko duten arazoengatik justifikatu du gobernuak laguntza horiek eman izana. Industria arloko inbertsio horiek dagoeneko eginak

edo ia eginak daude.

Irurtzunen Neumáticos Iruña S.L.-k motordun ibilgailuendako piezak egingen ditu. 1.853.619 euroko inbertsioa egin du. Gobernuak 370.723,8 euroko laguntza eman dio. Sei langile ariko dira Irurtzongo enpresan (taldeak guztira 47 ditu). Olatzagutiko Makinaria Ormazabal SL (Makor SL) makineria konpontzen ari-

ko da. 533.557,17 euroko inbertsioa egin du eta 106.711,43ko laguntza jaso du. Bost langile finko izatetik sei izatera pasako da enpresa. Azkenik, Kalpe Calderería Pesada SL-k 625.385,23 euroko inbertsioa egin du ingeniari-tza mekanikoan aritzeko. Gobernuarengandik 125.077,05 euro jaso ditu. Zortzi lanpostu berri sortuko dira.



Laguntza jasoko duten bi enpresak olaztiarrak dira, bestea irurtzundarra.

>> Altsasu

Gobernuko ordezkariekin bildu dira Lazaro Echeverriako langileak

Atzogoizean Laneko Zuzendari Nagusi Imelda Lorearekin bildu ziren Lazaro Echeverriako langileak. Haien eskareren berri ematearekin batera, langileek Nafarroako Gobernuari eskatutako grebarako eskubidea berma dezala. Bilera horren ondoren, lan ikuskaritza koordinezko erabileraren bilduziren langileak. Ikuskaritzaileei ere eskaera bera egin zieten, greba eskubidea bermatzeko gainean egoteko, salaketak pila-tzen ari direlako. Ikuskaritza enpresari 6.000 euroko isuna jarri diolajakinaz digute langileek. Gaur greba mugagabeko 52. eguna dute. Altsasu eta Ziordiko lantegi sarreretan kanpamendu bana jaso dute eta han egoten dira lanaldia izanen luketen garaian.

SAKANA

Sakana kooperatibak Siemensekin akordioa itxi du

Itsasoan jarriko diren 6MWeko haize-sorgailuetako abatzak egingen ditu

Alemaniar enpresarekin 2005etik lanean ari badira ere, berriki Hamburgon adostutakoaren arabera, Lakuntzako kooperatiba urte batez Siemens 6MWeko haize-sorgailuen bujeen erreferentziako hornitzaile izanen da. Aurretik izandako negoziazioaldian, Sakana kooperatibak enpresa alemaniarrendako lau abatz egin ditu. Horiek azterketa eta kalitate kontrol handiak pasa dituzte eta emaitza ona izan denez, kontratua etorri da.

Kooperatiba lakuntzarrean pozik hartu dute kontratua itxi izana. "Eskaera honek gaitasun teknologikoa, gaitasuna, konponbideak eta gure bezeroen konfiantzako lehiakortasun maila dugula erakusten du".

172 langile

1975ean sortu zen Lakuntzako galdategia. Sakana kooperatibak



Haize-sorgailuen hiru palei eusten dien pieza esferikoa da abatza. Bere egitekoa da haizetik hartutako potentziak, energia mekanikoa energia elektriko bihurtzea. Lakuntzako kooperatibak 50 tona eta 5 metroko diametroko piezak egingen dituzte Siemensendako. Estatuan haize sektoreran bideratutako galdategiko piezarik handiena da. Halako piezak Europan galdategi gutxi egin ditzaketela esan du.

azken hamarkadan 65 milioi euroko inbertsioa egin du. 2002 eta 2004 artean makineria eta azpiegiturak modernizatu zituen, baita galdaragintzako lehen pabilioia ere. 2008an 160 metro luze eta 23 metro altu dituen pabilioia eraiki zuen. Labe modernoagoak eta

60 tona arteko piezak erabili ahal izateko pieza gaitasuna duena.

Gainera, lehiakortasuna handitzeko eta bere produktuari balio erantsia gehitzeko Sakana kooperatibak jarduera osagarriekin ekin zuten. Soralue Makina-Erreminta enpresarekin batera Lakber

mekanizatu tailerra sortu zuen. Tratamientos Algoirekin batera, berriz, Goilak pintura tailerra sortu zuen. Inbertsio horien ondorioz jartzeko prest dauden galdatutako, mekanizatutako eta margotutako piezak eskaini ditzake Sakana kooperatibak gaur egun.

102 bazkide langile eta 70 langile ari dira. 2012an 50 milioi fakturatu zuen, %75a kanpoan. 2000 eta 2008 urteen artean 6.000 tona ekoiztetik 24.000 ekoiztera pasatu zen. Orduan 200 langiletik gora izatera izan zituen kooperatibak. 2009an krisialdiak kooperatiba kolpatu zuen eta eskaerak jaitsi egin ziren. Ondorioz 18 kaleratze eta kooperatibista ez ziren langileen kontratuak aldi baterako eteteko espedientea onartu zuen.

Azken bi hamarkadetan haize sektoreko enpresa handienak hornitzen espezializatu da (Acciona, Gamesa, General Electric, Fagor, Heller, Rolls Royce, Siemens, Wartsila eta Weir ditu bezero). Haize sektoreaz gain tamaina handiko galdategiko pieza teknikoetan hornitzaile nagusienetakoa bihurtu da, bai makina-erremintan baita itsasontzien motorren egileendako ere.

Bazkide zozketa

Apirileko sarituak:

Yolanda Arregui Lezea (Altsasu)

Ekainberri 2 sarrera + Triman 2 sarrera + Elhuyar liburu bat

Aurora Fernandez Goikoetxea (Olazti)

Katxiporreta kamixeta + Elhuyar liburu bat + Triman 2 sarrera

Jose A. Agirrebengoa Imaz (Altsasu)

Katxiporreta kamixeta + Elhuyar liburu bat + Triman 2 sarrera

Xabier Goñi Lazkano (Irurtzun)

Katxiporreta kamixeta + Elhuyar liburu bat + Triman 2 sarrera

MAIATZEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO 2 SARRERA + KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
2- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO

AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
3- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1
4- KATXIPORRETA ARROPA 1 + DONOSTIAKO AQUARIUMERA JOATEKO SARRERA 1



Non erabili

Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

ITXESI JATETXEA

UHARTE ARAKIL

Otorduetan kafea edo txupittoa doan.

IZARA

ALTSASU

%10 etxeko jantzi eta osagarrietan eta %5 gortina eta enkarguetan (eskaintza ez metagarria).

ARKUPE

ALTSASU

Erakuslehioren aldaketaga-

tik %50eko deskontuetatik gora.

TXIKITXO

ALTSASU

60€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilitzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

www.namastecentro.es-en galdetu eskaintzen berri.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60€ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30€ko gastuarekin %10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketatik betengatik etxeko produktua opari.



Aingeru Mikeo

Sakanako izar berria

astekoa

Izar bat sortu da Sakanan, gaztea eta jatorra. Gorputz lirainekoa eta garaia. Aldartez alaia. Zartako bortitza ematen dio pilotari eta erraz bidaltzen du errebotera. Bi beso luze eta bikain ditu, jotzeko botera, sotamanoz eta airera. Baina ez dira horiek bere dohai bakarrak.

Hanka arinak ditu eta gerri malgua. Buruz argia da eta tenplekoa, oinak lurrean sendo bertan dituena. Kirolaria denez, lehiakorra. Baina, pilotalekuan langilea eta kideekin laguna. Irabazlea izan arren, burura igotzen ez zaiona. Arrakastatsua ofizioan

eta zaletasunetan, baina izakeran apala, herri inguruko bide eta mendietan ibiltzen dena gustura. Baita gustukoa du herriko pakea ere, eta isiltasuna. Badaki pribilegiatua dela, hala ere, xumea da ametsetan, herrikoia, eta larreetan, osaba eta aitonekin behiak

zaintzen bere burua ikusten duena. Segi horrela, gizona!

Igandean duzu zeure bizitzako erronka, eskuz binakako txapelketaren finala. Zabaleta, izanen duzu zaleen berotasuna eta kidearen laguntza; baita familiakoek, lagunak eta telebistatik ikusiko

zaitugun zaleok ere emanen dizugu kementa. Zuk astindu pilotari gogor; dakizun bezala. Dagoeneko, bakarrik finala jokatzearekin ekarri duzu albiste ona, poza eta gozamen. Eta, ahal baldin baduzu, orain, ekarazu txapela. aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora

Ez da egia, gezurra da

Bai, gezur borobila: pentsio sistema publikoa sostenga-ezina dela gezurra da, aspalditik datorren mamua da. Chile eta Argentinan, diktadura garaian, sortu ziren sistema honen aurkako lehendabiziko erasoak, hau da, 1970eko hamarkadan. Estatu bi hauek hasi ziren pentsio publikoak estatuaren ekonomiarentzat arriskutsuak zirela aitortzen eta zabaltzen. Era berean

pentsio pribatuen aldeko kanpaina indartsuak erabili zituzten, pentsio hauen beharra eta abantailak azpimarratu eta langileria konbentzitzeko.

1994an Banku Mundialak egindako ikerketa baten arabera, etorkizun beltza eta katastrofikoak aurreikusten diote pentsio sistema publikoari. Argumentu demografikoak erabiltzen dute: etorkizunean jubilatu kopurua igo egin-

go da eta kotizatzaileena jaitsi, jasanezinezko egoera etorriko da, pentsio pribatuak sustatu behar dira. Hau argumentua ez, aitzakia da, Banku eta Finantza erakundeak erruz dirua pilatzeko aitzakia.

Gaur egun, pairatzen ari garen krisia dela eta pentsio sistema publikoa mantentzea ezinezkoa dela esan eta esan ari dira eta hedabide gehien parte hartzairekin, konbentziarazi nahi gaituzte, horrela dela, ez duela irtenbiderik. Eta bitartean Bankuak eta Inbertsionistak jo eta ke pentsio pribatuak sustatzen. Hori bai gauza bitxia! Egoera berdine-

an sistema publikoa sostengaezina eta pribatua bai. Gaztelaniaz esaten dena esango dugu: "hay gato encerrado". Garbi esan behar dugu maltzurkeriaz eta gezurretan ari direla.

Eraso basati honi aurre egin behar zaio, ahalik eta erantzun sendo eta trinkoena eman behar diogu. Jokoan dagoena oso garrantzitsua da guretzako, zein belaunaldi gazteen etorkizunerako. Baditugu pentsalari ospetsuak, ekonomia arloan jakintsuak, ikuspegi neoliberal honekin bat ez daudenak. Informa gaituzten, lortu dezagun ikuspegi kritiko bat, elkartu gaituzten, meta ditzagun

indarrak aurre egiteko. Egia erekin egin diezaiogun eraso gezurrari. Gure eskubideak eta gure seme-alaben etorkizuna defenda dezagun.

Gai hauek murgiltzeko aukera bikaina duzu: datorren asteartean, apirilak 30, Henrike Galartza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasleak hitzaldi bat emango du Etxarri Aranzako kultur aretoan, goizeko 11etan. Espero zaitugu, jubilatua izan ala ez izan.



hara zer dien

Laguntza sozial guztiak etorkinentzat? Ziur ote?

Hiritartasunaren tratu berdintasuna oinarritzko printzipioa da gizarte demokratikoetan. Gainera, europar legediak debekatu egiten du sexu, erlijio, jatorri etniko, edota ezgaitasun, adin, sexu orientabide edota sinismenengatik etor daitekeen edozein bazterkeria (Oinarritzko Eskubideen Eskutitzaren 10, 19, 20 eta 21. artikuluetan zehazten den moduan)

Hemen bizi eta lan egiten duten atzerriko jatorria duten langileek gainontzeko hiritarrek ordaintzen dituzten zerga berdina ordaindu eta kotizatzen dituzte. Horregatik, bai moraliki nola legalki desiragarria da euren kotizazioaren arabera dagozkien prestakuntza, laguntza sozialak jasotzea (langabeziakoak, ikasketarakoak, osasungintzarakoak.....)

Laguntza soziala jasotzen duten

etorkinen kopurua %7 da, bertako herritargoaren %46aren aurrean (EAE).

Gizarte zerbitzuetako gasturik handiena etorkinen presentzia txikiena den ataletara bideratzen da (dependentsia, ezgaitasuna.....) %1 soilik, nafarren %19,8aren aurrean. Iturria: Instituto Nacional de Estadística. Boletín Enfoques.

Etorkinen adinaren batz-beste-

koa 19 eta 44 artean dago estatuan. Osasun zerbitzuen erabilera baxuagoa da bertakoena baino. Iturria: Boletín Enfoques; EINn.

Gizarte zerbitzuetako laguntzak pobrezia edota ongizate ezaren egoerak gutxitzea norabideratuak daude, eta unibertsaltasun irizpidean oinarritzen dira. Laguntza horiek jasoko dituen pertsona, Erkidegoan, edota lurraldean bizi den edozein per-

sona fisikoa izanen da, eta berau jasotzeko bidea irekiko duen zirikua, erroldatzea izanen da.

Ez dago atzeritarrei bertakoaren aurrean lehentasuna emanen dien erregulaziorik. Ezta ere bere erabilera bide berezirik. Gainera, atzeritar nazionalitate ez da inoiz ere baldintza izaten dirulaguntza horietara lehentasunez jotzeko garaian, eta ez dago kuporik ere jatorrien arabera laguntza horietara jo ahal izateko.

Informazio gehiagorako: www.euskadi.net

Bego zestau, Inmigratio Zerbitzuak

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu behar dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzi

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

tu gabe, lurrera bota, astindua eman eta bertatik atera zuenean.

Hekimenek, gainera, guztiz ezezikotzat jotzen du Ertzaintzako buruek hartu zuten erabakia kazetariak gune itxi eta bereizi batean zedarrizteko. Kazetarien oinarritzko eskubideetako bat da informazioa ahal bezain hurbilen eta, batez ere, nahi duten ikuspuntutik eman ahal izatea. Hori da kazetaritza. Hori da gure lana.

Arbelaitzekin elkartasunez

Iñaki Mundiñano, Bierrik fundazioko burua (Hekimeneko partaide dira Guaixe eta Belexe)

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak elkartasuna agertu nahi dio Lander Arbelaitz Argia aldizkariari, Aske-Gunea hustutzeko operazioaren barruan jasotako tratua dela eta.

Hekimeneko kide sortzaileetako bat da Argia aldizkaria, eta Hekimenen helburuetako bat da euskal hedabideen presentzia eta eragina handitzea gizartearen. Horretarako, ezinbestekoa da

gero eta informazio kalitatezkoagoa eskaintzea. Hekimenen ustez, Lander Arbelaitz informazio zuzena emateko ahalegin betean ari zen Ertzaintzak, eskuan zeukan akreditazioa kontuan har-

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Oihana Zubeldia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a



>> Irurtzun

Udal aurrekontuko 20.500 euro zertara bideratuko den erabakitze garaia



Igerilekuko merenderoa hobetzen ari da orain udala. Lan gehiago egon litezke.

Irurtzundarrek igandera arte dute proposatutako lau proiektuen artean bat aukeratzeko

Irurtzundarrek Aurrekontu Parte-harzaileen taldeak aurrean baten ondoren adostutako lau proiektuen artean aukeratzeko eskatu die irurtzundarrei. Goiztiarrenekin larunbatean bertan eman zuten haien botoa. Hala egin ez duenak,

oraindik ere, igandera arte dupea zortzi puntuetako batetik pasa eta bere proposamena uzteko (Tahona, M^a Jesus elikadura, Lorena frutadenda, Erosle, udaletxea, liburategia, jubilatutako elkartea eta Pikuxar). Babes gehien jasotzen duen proposamena udal aurrekontuetan sartu eta gauzatuko da.

Prozedura horrekin udalak Bi

Proiektuak

Musika eskolan hobekuntzak
Artadia eta Ardanzeta kaleetako urbanizazioa egitearekin batera, Kultur Etxeko eta Musika Eskolako sarrerak ere egokitu behar dira. Proiektu horrek Musika eskolako eraikinean hobekuntzak proposatzen ditu: leihoak eta balkoiak aldatzea, euria jasotzeko hodi berriak, eraikuntzaren kanpoko aldea margotzea eta ate nagusia aldatzea.

Igerilekuetan hobekuntzak
Igerilekuko merenderoa zabaltzen eta hobetzen ari da udala, urtero igerilekuen mantentura bideratzen duen diru-sailarekin. Proposatzen den proiektuaren bidez

lehen solairuko aldageletako komunak, zisternak, dutxak... aldatuko lirateke. Eta beheko solairuan haur txikiak eta haien gurasoek erabiltzeko moduan egokituko lirateke komunak eta aldagelak. Igerilekuak zabaldu zirenez geroztik ukitu gabe daude azken horiek.

Bizikletaz ibiltzeko guneak
Proiektu horren bidez herri barnean eta inguruan bizikletaz ibiltzeko ibilbide bat sortzea proposatzen da. Helburua hiru kilometro pasatxoko zirkuitua osatzea litzateke eta inguru hauek lotuko litzateke: igerilekuko bidea, herriko kaleetako espaloietan, ondoren, beheak, espaloietan barna Master aldera, industrialdea inguratzen duen bidea

jarraituz Matxain aldera iritsi eta industrialde gainaldetik Plazaola hotelarantz hartu eta horrela zirkuitu hasierarekin lotu. Ibilbide markatzeaz gain, bizikletaz ibiltzeko dituen onuren inguruko informazio-kontzientziatze kanpaina ere egingen litzateke.

Atakondoa Eskolako aldagelak
Honako hobekuntzak proposatzen dira: iturgintzan, ur beroaren biderapen berria eta egungo ur hotzaren sarearen aldaketa; 16 dutxetako eta 4 komunetako ateak aldatzea hezetasunari aurre egiteko material egokiagoak erabiliz; konketa eta ur pikak dauden tokiaren hobekuntza eta margo lanak, akaberak eta ispi-luak eta argi aparailuak.

Aizpetako bidexka konpondu zuten eta oraindik martxan dagoen Espaloiei errespetua. Seinalei errespetua proiektua garatu zuten. Gainera, aurreko urteko parte-hartze prozesuaren bidez jasotako beste

proposamen batzuk ere gauzatu ditu udalak, diru inbertsio handirik eskatzen ez ziolako eta biderragarratasuna zutelako.

Dei bikoitza egin diete irurtzundarrei. Batetik, proiektuaren baten

alde botoa ematera animatu dituzte. Eta, bestetik, heldu den urterako aurkeztu daitezkeen proiektuak proposatzeko. Ekarpentzat "biderragarrak izatea eta ahalik eta zehatzten adieraztea" eskatu dutesoilik.

>> Irurtzun

Institutu berriaren eskariarekin Arartekoarengana

Arartekoak asteartean jaso zituen Iruñeko iparreko Institutu Batzordearen berri. Biurdana, Orkoien, Sanduzelai, Patxi Larrainzar eta Irurtzundarrek ikastetxeetako Guraso Elkarteek sortutako batzordeak Arartekoaren erregistroan Hezkuntza Departamentuaren eta bere Kontseilariaren jokabidearekin kokatu zituzten. Izan ere, informazio eske egindako hirueskaerari oraindik ez baitie erantzunik eman. Biurdana institutua masifikatuta dagoela eta Iruña iparraldean beste ikastetxe bat behar dela adierazten duen eskaera aurkeztu dute.

>> Etxarri Aranatz

Herri baratza egitasmoa hemen da

Igandean aurkeztu zuten proiektua, hainbat etxarriarrek sustatu dutena. Nahi zuten herritar guztiak ez zutelako lursaila lortzeko aukerarik izango kezkatu ziren. Gainera, prestakuntza eza eta nekazaritzari loturiko ondarea berreskuratzeko eta transmititzeko beharra sumatu zuten. Udalarekin harremanetan jarri eta herri lurren zati bat utzi die.

Herri baratzak ekologikoki landu nahi dute, esperimintatuz. Baratzak "etxarriarren topagune izan eta elkarlanean oinarrituko den gune irekia" proposatu dute, "kul-

Norendako

Egun baratzik ez eta nahi dutenendako. Nekazaritza ekologikoaren inguruko prestakuntza jaso nahi dutenendako. Eta ikastetxeendako, lurrari lotutako kultur transmisioa lan dezaten.

tur transmisioan eta generazioen arteko irakaspenean oinarrituta".

Helburuak

Trukerako erabiliko dituzten bertako haziak jasotzen hasi da talde sus-



Jende asko erakarri zuten Ama-Lur azokaren baitan aurkeztu zen proiektuak.

tatzailea. Bertako nekazal ondarea berreskuratu nahi dute. Nekazaritza ekologikoari eta hainbat teknikari buruzko ikastaroak antolatuko asmoa dute. Herri mintegia sor-

tu eta hondakin organikoak konpostatzeari alde egingen dute. Aldiberean, herri baratzak kultura eta jatorri ezberdineko etxarriarren bilgune ere izan nahi dute sustatzaileek.

948 461 734
Burundabide 5
ETXARRI ARANATZ

Basogintza, lorezaintza eta nekazaritzako makinak salmenta eta konponketa!

STIHL

DENDA BERRIA IRURTZUNEN
Dos Hermanas 34
948 500 392

SAKANA

Martxoan 13 langabetu gutxiago

Agorrilean langabeziak hartu zuen gorako joera martxoan eten eta 8 hilabetetan estraineko langabeziak behera egin zuten Sakanan. 2.008 pertsona ziren martxo akaberan lan bila zeudenak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden sakandarretatik gizonezkoak 1.015 dira (%50,55), aurreko hilean baino 2 gutxiago. Emakumezko langabeak, berriz, 992 dira (%49,45), 11

gutxiago.

Adinari dagokionez, langabetu gehienek 25 eta 44 urte artean dituzte: 969 (%48,94; aurreko hilean baino 20 gutxiago). 45 urtetik gora eta lan bila daudenak 815 sakandar dira (%40,59; 5 gehiago). 25 urte baino gutxiago duten eta enplegu bulegoan izena emanda duten 224 sakandar daude (%11,16; 2 gehiago).

Sektoreei dagokionez, lan

eskaintzen erdia, %50,55, zerbitzuan aritzeko da (1.015; aurreko hilean baino 6 gutxiago). Industrian lan egin nahi lukete langabeen %34,61k (695; 1 gutxiago). %7,97 prest dago eraikuntza arloan aritzeko (160; 2 gutxiago). Lehen sektoreak, berriz, eskaeren %1,84 jaso du (37; berdina). Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabilenak %5,03 dira (101; 3 gutxiago).



Kisugilea aldamio gainean. ARTXIBOA

Langabezia udalerrria		
Udalerrria	Gutziara	Aldea
Altsasu	986	-12
Arakil	88	-2
Arbizu	75	0
Arruazu	3	-1
Bakaiku	21	-1
Ergoiena	13	-1
Etxarri Aranatz	212	-4
Irañeta	8	1
Iruztun	207	5
Iturmendi	15	-1
Lakuntza	109	5
Olatzagutia	144	-6
Uharte Arakil	63	-1
Urdiain	39	5
Ziordia	25	0
Gutziara	2.008	13

>> Altsasu

Sunsundeguiko hornitzaileek zorraren %30 ez dute kobratuko

Negoiazina da. Halaxe esan die Sunsendeguiko zuzendaritzatik enpresa hornitzaileei. Autobus konpainiak enpresa txiki horiekin pilatuta duen zorraren herena ez die ordaindu. Eta gainon-

tzekoa 24 hilabeteko epean ordaintzeko asmoa azaldu die. Hornitzaileek dirua ikusi nahi badute baldintza bat bete behar dute: Sunsendegui materialez hornitzen segitu.

Hornitzaile batek azaldu digunez, "izoratu egin gaituzte. Gu ari gara Sunsendegui finantzatzeko". Kexu dira enpresa sekula ez delako haiekin harremanetan jarri zorra ordaintzeko moduez ardu-

ratzeko. Haiek jo behar izan dute zuzendaritzarengana, behin eta berriz, erantzunen bat jaso ahal izateko. Dena ez da pena, Sunsendegui hemendik aurrera 30 egunera ordaintzeko asmoa azaldu baitu. Hornitzaileak berriro enpresa handiaren zorrak ez itozteko bestelako ordainketa bermeak eskatzea aztertzen ari dira.

>> Olatzagutia



Autoak proba hasi aurretik. ARTXIBOA

Sunsundeguirako planak ekarritako lan eta gizarte normaltasuna nabarmendu du UGTk

MCA-UGTko Idazkari Nagusi Lorenzo Riosek azaldu zuenez, bidegarritasun plana onartu ondoren zuzendaritzak jakinarazi die proiektuak eta eskaerak sartzen ari direla, "dirudienek, bezeroek enpresarengan konfiantza berreskuratu dutelako. Ekoizpen aurreikuspen horiek kaleratze kopurua 63tik 49ra pasarazi ditu; kaleratutako 20 haien borondatez doaz". Langile horiek heldu den astelehenean utziko dute lantegia eta 152 geldituko dira. Riosek Sunsendeguirako eskaerak iristen jarraitzea espero du. Eta gogoratu du "2017rako helburua da enpresak egonkortasun eta hazkunde garaiko enplegu eta ekoizpen maila izatea".

UGTko metaleko federazioko buruak LABek egindako adierazpenei erantzun nahi izan zuten adieraziz, "haien jarrera arduragabea



UGTko ordezkariak Iruñeko prentsaurrekoan. UTZITAKOIA

estaltzeko gezurrak besterik ez dira". Planaren negoziazio mahaitik LABek alde egin zuela eta plana langileen %60ren babesa jaso zuela gogorarazi zuen Riosek. "Harrigarria da LAB garbiketa ideologikoaren aritzea Sakanako UGTko delegatu asko denbora luzez haien setioa sufritzen ari direnean".

Zenbait kasutan salaketa jarri dutela gaineratu zuen UGTko buruak.

LABek jarrera horrekin jarraitzen badu, Riosek iragarri zuen Sunsendeguiko LABeko hiru delegatuen "baliogabetze demokratikoa" sustatuko luketela: %33ren sinadurak jasotzea eta aipatu delegatuen "legitimazio eza" sustatzea.

Sakanaz

Ibarreko UGTko buru Davi Medinak adierazi zuenez, langabeziaren aurrean Sakanak duen arazoa "garrantzi izugarrikoa da. Horregatik, eragile guztiak, politikoak, ekonomikoak edo gizartekoak, konponbideak bilatzeko norabidean tiratu behar dugu". Sindikatu batek ibarreko langile eta herritarren arazoez ahaztu eta alderdi politiko baten postulatuei men egiteak UGT harritzen zuela esan zuen.

Medinak ziurtatu zuen "Sakana mapatik ez desagertzeko lanean ari direla" eta "ezkutuko helburuengatik" beste batzuei kontrako egitea egotzi zien. Arazoei konponbidea emateko batu edo gainontzekoen lana ez oztopatze eskatu zuen. Udalei "herrien eta herritarren alde egitea" eskatu zien. +www.guaixe.net

Eskuderiak esandakoa ukatu dute udaletik

Olatzi Rallysprinta dela eta, aurreko astean Guaixen argitaratu zen Sakana Motorsport eskuderiaren esker ona eta hainbat iritzi. Azken horien aurrean, Olatzagutiko alkateak eta udaleko langileek adierazi dute: "kolektiboak salatutako gertakari eta jarrerak ez dira errealitatearekin bat etortzen". Bai alkatezari baita udal langileei ere ez zaie onargarria iruditzen "Sakana Motorsporten erreklamazioak eta gaizki ulertuak prentsa bidez zabaltzea, alde aurretik inplikatuak aldean artean konpontzen eta argitzen saiatu gabe".

>> Altsasu

Aske Gunearen desegitea salatu du Ernaik

Espainiako Auzitegi Gorenak Segiko kide izateagatik zortzi gazte atxilotzeko operazioa egin zuen aurreko ostiralean Ertzaintzak Donostiako Bulebarrean, han sortu zen Aske Gunean. Polizia agertu zenean Aske Gunean zeuden pertsonak, zenbait sakandar tartean, elkarri besoetatik helduz lurra eseri ziren atxilotzeko agindua zuten gazteen inguruan. Erresistentzia baketsuz aurreegin zuten Ertzainei.

Aipatutako 6 gazteek gain atxilotu gehiago izan ziren. Horietako bat Altsasuko emakume gazte bat. Polizia-etxean ordu batzuk egon ondoren epaiketaren zain gelditu da. Aske Gunearen desegitea, hartarako Ertzainek erabilitako bortxaketa mehatxuak, ile tirakadak, beso bihurtuak, irainak eta atxilotetak salatzen ostiral arratsaldean manifestazioa egin zen Altsasun.

Sunsundeguiko kaleratzeengatik, UGT egoitza aurrean

LABeko "garbiketa ideologikoa" salatu zuten 40 pertsonak. Aurrean UGTko Nafarroako idazkari nagusi Juan Goyen eta hainbat delegatu izan zituzten

Ordu erdiz UGTk Altsasun duen egoitzaren aurrean kontzentratu ziren. Sunsendegui izan diren 49 kaleratzeengatik protesta egin zuten bildutakoek. LABek nabarmendu zuen kaleratuen %90 UGTkoak ez diren langileak direla. UGTk ostiralean esandakoak "kalumniako adierazpen" jo zituzten LABen eta ukatu egin zuten "kaleratzeen herenak



Kaleratuen kontzentrazioa ezkerrean, UGTko kideak eskubian; egoitza aitean.

UGTrekin lotura duten langileei eragiten dienik". UGTko delega-

tuak jarri izana ere ukatu zuten. Sunsendegui gertatutakoaren

SAKANA

Maiatza zutizera

Heldu den asteazkenean maiatzak jasokodituzteetxarriarrek, bakaikuarrek eta iturmendiarek. Bakaikun Harzabalen eguerdian hasiko dira hura jasotzen. 12:00ak pasatxo hasiko dira Etxarri Aranatzaren pago enborra zutitzeko lanak. Iturmendiko kintotak larunbatean joan zirenen herriko plazan jarriko duten pagoaren bila. Hura prestatu eta 18:00etatik aurrera plazan zutitzen hasiko dira.



AHT lotura nondik egin aztertzeko eskatu diote Madrili

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko AHT lineak (Iruña-Itxaso) nola lotu aztertzeko egitasmoa indartzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari. Eskaera hori atzo egindako bileran adostu zuten Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik eta Sustapen kontseilari Luis Zarraluk. Biek ere Espainiako Gobernuari eskatu diote 2011n lotura ikertzeko sinatutako hitzarmena bete dezala, ez baitu martxan jarri.

Etxarri Aranatz

Bihar preso eta iheslariekiko elkartasun eguna

Herrirak antolatuta, euskal preso politiko eta iheslariak gogoan izateko egitaraua antolatu dute biharko. Eguerdian abiatu eta gaueko ordu txikietaraino luzatuko da publiko guztiendako prestatutako programazioa. Batukada, dantzariak, zarpantzarra, taloak, txozna eta beste izanen direla iragarri du Etxarri Aranatzko Herrirak.

Egitaraua

11:00etatik 13:30era Puzgarriak eta umeendako animazioa.
13:30etik 14:30era Bertso saioa: Eneko Lazkoz, Xabier Silbeira, Josema Leitza eta Jokin Uranga.
14:30ean Herri bazkaria.
18:00etatik 19:30era Herri kirolak: Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz eta Altsasu.
20:00etan Manifestazioa.
21:00etatik 2:30era Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

SAKANA

Euskara talde eta ikastetxei zuzendutako deialdietan eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 15ean despidituko da

Sakanako euskalgintzak eta ikastetxeek euskara sustatzeko egin dituzten jarduerak laguntzeko asmoz Sakanako Mankomunitateak laguntza deialdi bana egin du. Euskalgintzako deialdiari dagokionez, Mank-ek lagunduko ditu euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko helburu duten egitasmoak zein euskararekiko jarrera hobetzea dutenak. Diruz lagunduko dituen jarduerak aurtuen egin behar dira. Mank-ek euskalgintzako erakundeen artean 5.000 euro banatuko ditu aurtuen.

Ikastetxeak

Ibarreko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxei zein ikastetxe horietako guraso elkartei zuzenduta diru-laguntza deialdia ere egin du Mank-ek. Hizkuntza eredu guztiak kontutan hartuta, bai ikasleei bai gurasoei zuzendu-

Euskararen erabilera sustatzeagatik laguntzak emanen ditu Mank-ek

tako prestakuntza edota sentsibilizazio saioek ere tokia dute ikastetxeendako deialdian.

Hala, kontuan hartuko dira etxetik eskolarako autobus ibiliak, eskolako atari ingurua, sarrera-irteera orduetan egindako ekimenak baita jolas orduetakoak ere. Ikastetxeko pasabide eta eskailerak, sarrera-irteera zein klasealdaketa orduetan eta eskolaz kanpoko orduetarako aurrera eramandako jarduerak ere aurkez litezke deialdira. Beti ere, aurtuen eginen diren ekimenak lagunduko ditu Mank-ek. Ikastetxeen artean 3.000 euro banatzeko diru poltsa du ibarreko erakundeak.

Batzuk eta besteak, eskabidearekin batera, IFKaren fotokopia, egin nahi den jardueraren gaineko plangintza xehatua, jardue-



Aizpea euskara taldeak ekarrita aritzen dira urtero pailazoak Irurtzunen.

rei lotutako diru sarreren eta gastuen gaineko aurrekontua eta beste erakundeetatik laguntzarik jaso bada, hura azalduz aitor-

pena aurkeztu behar dute. Ibarreko erakundeak Lakuntzan duen egoitzan aurkeztu beharko da dokumentazioa.

Altsasu



Altsasuko hautetsiak aurreko bilkura batean.

Festa egitarauak ez du erlijio ekitaldien berri emanen

Herenegungo bilkuran Altsasuko Udalak erabaki zuen aurrerantzean festa egitarauan ez dela erlijio ekitaldien berri emanen. Horrekin batera, udalak ez zuzenean ez zeharka elizkizunetan ez parte hartzea erabaki zen. Gainera, udalaren aldetik "fedea konkretu bateko ordezkariak ez dute beste fedea batzuetako ordezkarien aurrean faborezko traturik edukiko". Beraz, hemendik aurrera udalaren parte

harterik ez da izanen festa eta erromerietako elizkizunetan.

Bilduk aurkeztutako mozioan nabarmendu zuen Altsasun fede askotariko pertsonak eta erlijiorik profesatzen ez duten pertsonak daudela. Eta gogora ekarri zuten udalak eta instituzio publikoak laikoak eta akonfesionalak direla. "Udalaren eginkizuna da altsasuar guztiendako ekintzak eta proposamenak eskaintzea, fedea konkretu

baten partaideak direnei soilik zuzentzea lekutik kanpo dago".

Bilduk aurkeztutako mozioak Aralarren babesa jaso zuen. NaBaik eta PPK kontra bozkatu zuten eta IU abstenitu eginen. Bai NaBaik nola IUk gaia festen eta herritar parte-hartze batzordean aztertzea eskatu zuten, altsasuarren eta eragileen parte hartzearekin. Eskaera hori onartu ez zenez eta mozioa bozkatu zenez,

NaBaik kontrako boza eman zuen. Koalizioak azaldu zuenez, ermitetara udalak egin dituen desfileak "altsasuar askorendako, zentzu erlijioso baina, zentzu historikoa edo tradiziokoa du, herrian oso errotua". NaBairi orain arteko formula ez zaio gaizki iruditu: "tradizio hori mantendu eta gero zinegotzi bakoitzak libreki erabakitzea errito erlijiosoan parte hartzen duen edo ez". PSN eta UPNko ordezkariak ez zen bilkuran izan.

Gehiago

Altsasu Alzheimerrearekiko Herri Solidario izendatu eta gaitz horri aurre egiteko estatu-politika abiaraztea aldarrikatu zuen. Bestalde, onartu egin zen IUk aurkeztu eta Bardeetako tiro poligonoa bertan behera uzteko eskatzen duen mozioa.

Bestalde, auzitegiak Estatuko Abogazioari arrazoia eman dio eta Altsasuko Udala udaletxean Espainiako bandera jartzera behartu du. Udalak auziko kostuak ordaindu beharko ditu. PPK eskatu zuen epai horri helegiterik ez jartzea eta kostuak udalak ordaindu beharrean alkateak ordaintzea, "legea bete beharra baitu".

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

Tel.: 948 562 829
 faxa: 948 563 002

Unamuno
 ALTSASU

BEROGAILUENDAKO
 BIOERREGAIA

PELLETS
 15 kg

FRUTA-ARBOLEN
 GARAIA BADATOR

GANUZA
SUKALDEAK
 SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak
 Horma armairuak
 Elektragailuak

GANUZA
GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203
 faxa: 948 460 673
 Etxarriko industrialdea
 ETXARRI-ARANATZ

sorgiñak
 taberna

LAKUNTZA
 948 576 357

asi
 arretea eta orientazio
 psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
 PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA

Urbasa kalea 15, behea
 31800 - Altsasu (Nafarroa)
 948 467 354 - 669 367 422

>> **Dorrao**

Lurra dardarka

Larunbatean, 17:28an, Utergan epizentrotan zuen 4,2 magnitudeko lurrikara izan zen. Zenbait dorrobarrek sentitu zuten lurrraren mugimendua. Baita duela hilabete Etxaurin epizentrotan zutela adierazi digute. Kalte pertsonalik izan ez bazen ere etxeko objektuak eta altzariak mugitzen sentitu zuten. Erreniega inguruan otsailaren 14az geroztik lurrikara ugari izan dira. Antza botatako euri kopuru handiak mugiarazi du lurra.



Dorraoko ikuspegia.

Sakanako azken lurrikarak

Data	Lat	Lon	Sakon (km)	Mag.	Int	Kokapena
1982-03-11	42.8917	-1.9500	10	3.8	IV	Uhartea Arakil HE
1982-05-22	42.9233	-2.0433	13	3.9		Arbizu IM
1982-12-31	42.9467	-1.9633	6	3.5		Uhartea Arakil I
1993-01-26	42.8983	-2.0883	6	3.5		Bakaiku IE
1998-10-27	42.8587	-2.0145	10	5.2	V	Lizarraga HE
2001-06-02	42.8989	-1.7888		2.9	IV	Irurtzun HE
2002-02-21	42.9341	-1.8753		3.8	V	Egiarreta M
2002-02-27	42.9594	-1.8783		2.8	IV	Egiarreta IM
2002-02-27	42.9554	-1.8570	5	2.7	III	Egiarreta IM
2002-03-18	42.9130	-1.8039		3.3	IV	Irurtzun HE
2002-05-02	42.9570	-1.9288		2.7	IV	Irañeta IE
2007-07-31	42.9400	-1.8636	2	2.7	III	Egiarreta IM

I: iparra; E: ekialdea; H: hegoaldea eta M: mendebaldea. Iturria: Instituto Geográfico Nacional.

>> **Hiriberri**

Industrialdea izoztuta

Administrazio tramitazioa egin ondoren, Prolivisa enpresa pribatuak Hiriberri eta Ihabar artean sustatu behar zuen industrialde egitasmoa aspaldi dago gelditu. 56.000 metro karratu azalera aurreikusitako zen. Baina enpresak ondo jo eta haren ondasunak, Hiriberriko lurrak barne, Banco Popularren esku gelditu dira. Jabe berriak industrialdea garatzeko interesa azaldu zion udalari, baina duela urte batez dute haren berririk Arakilen. Gainera, aurreko lurren jabeak udalarekin dituen zorrak jabe berriak bere eginen dituen ahalgintzen ari da udala.



Industrialdea iragartzen zuen kartela.

>> **Satrustegi**



Satrustegiko ikuspegia hegoaldeetik. ARTXIBOIA

Sareak eta zorua berritzeko eskaera gobernuaren esku

Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuari premiazko eskaera egin dio Satrustegiko hornidura sareak eta zorua berritzeko. Lan egitasmo hori Tokiko Azpiegituren lau urteko planean erreserban dago eta haiek urgentziaz egiteko eskaera egin du orain udalak. Gobernuako teknikari bat Satrustegin bisitan izan zen, eta orain gobernuaren erantzunaren zain daude kontzejuan eta udalean. Satrustegi ipar mendebaldean

babes ofizialeko 14 etxebizitza egiteko egitasmoa bertan behera gelditu zen. Beste sustatzaile batek egitasmoa hartu eta berregin du eta udalari epeka egin litezkeen 10 etxebizitza libre egiteko proposamena luzatu dio. Horregatik, arau aldaketa proposatu dio enpresak udalari. Arkitektoaren txostenaren zain dago udala erabakia hartu aurretik. Azkenik, Satrustegiko Kontzejua aurtengo aurrekontua 15.147 eurokoa da.

guaixe.iragarkilaburak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburak.com-en doan.
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu, lan eskaintzak 10 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/negozioak

LAN ESKARIA

Emakume euskalduna Sakanan lan egiteko prest. Etxeko garbitasuna, adineko pertsonak eta umeak zaintzeko prest egongo nintzateke. Telef 948- 46 03 82.

Ikastaroak

Birziklatze tailerra. Irakaskuntza artistikoa eta sormen pentsamendua. Idoia Oses Perezek zuzendutako tailerra. Maiatzaren 4, 11 eta 25 eta ekainaren 1a, 10:00etatik-12:00etara (12-15 urtekoentzat), 12:15etatik-14:15etara (16 urtetik gorakoentzat). Doan. Tokia Lakuntzako Udala. Izen ematea 948- 57 60 15.

AESeK ikastaro hauek antolatu ditu. "2012ko lan erreformaren gaineko epaileen doktrina berria", zehazteke; "Proiektuak kudeatzeko baliabideak", 30 ordu, maiatzaren 15etik ekainaren 6ra arte; "Elkarrizketak ingeleraz", 35 ordu, maiatzaren 29tik uztailearen 3ra; "Buruko mapak. Informazioaren antolaketa optimizatze erremintak", 15 ordu, ekainaren 6tik ekainaren 20ra; "Nola landu aurkezpen eraginkorrak", 25 ordu, ekainaren 7tik ekainaren 21era.

UGTk ikastaro hauek antolatuko ditu.

"Soldadura TIC" maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean); "Excel aurreratua" maiatzaren 6tik 23ra.

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonomico.php>

Lehiaketa

Irurtzunen festetako irudi bila. Aurtengo festak iragarriko dituzten kartelak aukeratzeko 23. edizio aukeratzeko lehiaketa antolatu du Irurtzunge Udalak. Epea: maiatzaren 31 baino lehen. Bi maila izanen dira: 14 urte artekoak eta helduentzako. Informazio gehiago www.irurtzun.es

eskelak

Jose Luis Gerrikagoitia

Azken arnasa ematen dugu
Eguzkitik eguzkira
Azken arnasa eman nahi nuke
Itsasoari begira.

Sakanako Mankomunitatea



Agustin Ciordia Guerendiain

Goian bego

Zure familia

Altsasun, 2013ko apirilaren 21ean.

Adur Mariñelarena

8 urte pasa diren arren
zure lagunek
gogoan zaitugu

Etxarri Aranatzen



Asun Arregui Mendia

Beti gure artean
egongo zara.

Mendoza Arregui familia

Ziordian, 2013ko apirilaren 23an.

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

Juli Berastegi Arbizu

2. urteurrena

Dagoeneko 2 urte pasa dira,
baina ez zaitugu ahaztuko.
Gure bihotzetan beti
izango zaitugu.

Meza nagusia Lizarragan, apirilaren 28an, 13:15ean.

Etxekuek

Lizarraga-Ergoiena





GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Osaba Friki

Ta ez galdetu inoiz
zer galdu genuen
negar egin genuenean.
Malko haiei esker
orain itsasoa gara.



Zure ilobak



Fidel Salinas

Une latz hauetan gure ondoan egon
zareten guztiei
mila esker!

Familia



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

Fidel Salinas Ferrer

(Andra Mari Ikastolako Gurasoa)



Amets bat baldin bada
betiko bizia
amets ederrena da,
amets da guztia.



Andra Mari Ikastolako guraso, langile eta ikasleak



Friki

“Eta eguna iritsiko da
urrun dauden horiendako
eta basoek oihartzuna egingo dute
haien irriekin.”

(Led Zeppelin)

Zure lagunak

JAIOTZAK

- Eider Perez Garcia, apirilaren 7an Olaztin.
- Alain Santano Malo, apirilaren 12an Altsasun.
- Urko Lanz Bajo, apirilaren 13an Satrustegin.

HERIOTZAK

- Ascensión Iriarte Pozueta, apirilaren 17an Olaztin.
- Agustin Ciordia Guerendiain, apirilaren 21ean Altsasun.
- Jose Fidel Salinas Ferrer, apirilaren 21ean Etxarri Aranatzen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Fidel Salinas Ferrer

Senti ezazu / ditzira bat itzaletan,
hitzak lehertzen direnean,
behin eta berriz / ezintasunen gainetik
aske irauten dugula,
senti ezazu.

(Itxaropena)

1960ko kintoak



Fidel Salinas Ferrer

Joan zara ta gurekin zaude
ulertzen zaila da sarri
beti gurekin dagona ere
ezin daiteke ekarri
Maitasuna da izandakoen
eta garenon lokarri
bihotz askotan duzu lekua
bizi zaren ezaugarri.

4. mailako Jonen lagun eta gurasoak



Fidel Salinas Ferrer

Nafarroa Oinezeko txoznetako
hamaiketakoengatik,
J.B. Bandaren kontzertuengatik,
Gure adiskidetasun xumeagatik
topa egingo dut, Fidel.
Mila esker.

Gema

Friki

Ikasten hasia zinen
ikastearekin hazitzen
hazitzearekin esnatzen
esnatzearekin, zer ba, lokartzen.

Itziar

Etxarri Aranatzen, 2013ko apirilaren 22an.



Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu • 948 564 275 • argi@guaixe.net

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA

Kirola >>

AIZKORA

NAZABAL URREZKO AIZKORAN: Banakako Aizkora Txapelketan lehia sartuko da Floren Nazabal. Igandean, Gasteizko Armentia-

ko zelaietan, 12:30ean, egungo txapelkun Nazabal, Juanjo Lopez Azpilikueta, Senosiain I eta Arkaitz Jauregi ariko dira lehia.

Pilota

Iritsi da ordua

IRUJO-ZABALETA BERASALUZE II-ALBISUREN KONTRA JOKATUKO DUTE FINALA, IGANDEAN, BILBOKO BIZKAIA FRONTOIAN, 17:00ETAN ABIATUKO DEN JAIALDIAN (ETB1). ETXARRENGOAK TXAPELA EKARTZEKO AUKERAK DITU



Zabaleta, Irujo, Berasaluze II eta Albisu. Guztiek nahi dute txapela.

Ahalik eta lasaien egotea eta igandelehenbailehen iristea. Hori da Jose Javier Zabaleta pilotari sakandarraren nahia. "Orain lasai nago, baina finala gerturatu ahala urduritasuna nabaritzen hasiko naiz" adierazi zigun aurreko astean. Espero dezagun Etxarrengoak finalaren presio handi hori ahalik eta hobekien ematea, gizon lasaia baita. Eta umila. Lorpenarekin, txapelketan debutatu eta finalera hel-tzea, harrigarria. Txapelketa bikai-

na egin du Irujorekin batera, baina bera gustura bizpahiru partidekin geratu da soilik. "Beti dago zerbait ikasteko" dio.

Azken egun hauek eromena izan dira: medio guztiak atenditu, entrenatu, finalerako prestatu... baina iritsi da ordua. Gainera, oso final estua aurreikusten da, Berasaluze II-Albisuk behetik gora egin dutelako eta sasoi betean daudelako. Ongi iritsi dira lau pilotariak finalera eta ikuskizuna ziurtatu-

ta dago. Hala ere, badirudi dirua Irujo-Zabaletaren alde aterako dela. "Konfiantzarekin daude Berasaluze eta Albisu, ongi. Niretzat ez dago faboritorik. Oso estua dago gauza" nabarmendu du.

Material aukeraketa atzo egin zen eta dena prest dago igandeko zita handirako. Finalak ikusmira handia piztu du Sakanan, bereziki Arakil aldean, eta igandean denok egongo gara Bilbora begira.

Albisuk zaleak Lakuntzan

Zabaleta da finaleko ordezkari sakandar bakarra, baina Jon Ander Albisuren ama lakuntzarra da, eta, hortaz, Ataungoak baditu jarraitzaileak ere Lakuntzan.

Arakilgo autobusa

Arakilgo Udalak autobusa antolatu du, igandean finalera joateko. 15:00etan abiatuko da Etxarrendik eta 20:00ak aldera itzuliko da (errol-datuek 2 euro eta gainontzekoek 6 euro). Izena emateko Arakilgo Udalerako deitu behar da (948500101).

gertutik >>

Jose Javier Zabaleta

Pilotaria



Lortu duzuna ikusgarria da. Oso pozik nago debutatu eta finalera heldu naizelako. Behin helduta, dena nahi duzu.

Zer diozu Bizkaia frontoiaz?

Nahiko noblea da. Finalak beti dira partida ezberdinak; igandekoa ez da ligaxkako partida bat bezala izango.

Etxarrenek, kontentu!

Beno, baietz pentsatzen dut...

Senitarteko eta lagun asko joango dira finalera?

150 sarrera eman zizkidan enpresak eta familiari eta hurbilekoei banatu dizkiet.

Zorte on eta ea txapela Sakanara etortzen den! Eskerrik asko.

Pilota

21. IRURTZUNGO
PILOTA TXAPELKETA

Final zortzirenak

Asteburuko partidak:

* **Larunbatean, 10:00etan:**

Etxarrenek:

Gazteak:

Lizarraga -Ibero (Bi Aizpe) / Oroz -Ruiz (Zugarralde)
Rodrigo -Garcia (Titin) / Larrea -Imaz (Aurrera Saiatz)

Olarra -Flores (Oiarpe) / Olizola -Mendi (Gure txokoa)

Kadeteak:

Marcos-Aizpuru (Titin) / Aranbarri -Sarasola (Usurbil)

Irurtzunen:

Gazteak:

Zamora -Lezaun (Huarte) / Sagastibeltza -Andueza (Oberena)

Santesteban -Saraguet (Esteribar) / Garaio -Mateo (San Migel)

Ruiz de Heredia -Agirre (Zaramaga) / Espinal -Sarasa (Huarte)

Labaka -Iruetagoiena (A.Saiatz) / Bakaiakoa -Mariezurrena (Erreka)

* **Igandean, 10:00etan, Etxarrenek:**

Kadeteak:

Peña -Aburuza (Aurrera Saiatz) / Okiñena -Iruirita (Oberena)

Ruiz de Loizaga -Bengoia (T.Lakua) / Egiguren -Erasquin (Zazpi Iturri)

Ramirez -Grados (Pilotajauku) / Zaldueño -Anduaga (San Migel)

Gazteak:

Apaolaza -Imaz (Urretxu) / Larunbe -Goñi (Huarte)

* **Maiatzaren 1ean, Irurtzunen:**

Seniorrak, 10:00etan:

Aznarez -Lana (San Migel) / Iriarte -Arano (Buruzgain)

Quina -Biain (Aurrerasaiatz) / Mendiñeta -Perez (Txukun Lakua)

Kortabarria -Gomez (Titin) / Loban -Tabar (Huarte)

Seniorrak, 16:30ean:

Lansalot -Okiñena (Oberena) / Loidi -Azpitarte (Real Sociedad)

OLabaka -Telletxea (Aurrera Saiatz) / Ugalde -Ugalde (Oiarpe)

* **Maiatzaren 2an, 19:00etan, Irurtzunen:**

Vidan -Garcia (Oberena) / Ezkurdi -Irañeta (Irurtzun)

Santxo -Urruzola (Usurbil) / Zuasti -Pina (Paz Ziganda)

>>

Buruz Burura nor: Ezkurdia ala Merino

Atarikoak, Altsasun

Altsasuko Burunda frontoian, ostiralean, 22:00etan. ETB1
- Merino II-Ezkurdia
- Hasierako partida: Retegi Bi-Peña-garikano / Aritz Lasa-Merino

Ezkurdiak ala Merinok. Nork lortuko du Buruz Bururako tokia? Gaur jakinen dugu hori, Altsasuko Burunda pilotalekuak gaueko hamarretatik aurrera hartuko duen atarikoan. Aurretik binakako partida antolatu du Aspek. Jaial-

dia zuzenean eskainiko du ETB1ek.

Joseba Ezkurdia aurrelari arbizuarra Aritz Lasa bidean uztekin dator, eta David Merinok berdina egin du Aitor Zubietari etxarriarrarekin. Biek dituzte aukerak, Merinok, akaso, esperientzia gehiago bere alde. Baina espero dezagun arbizuarrak aurrera egitea, zaleen babesarekin jokatu duen partidan.

Zubietak ezin izan zuen Merinorekin

Buruz Buruko atarikoan Aitor Zubietari 19-22 irabazi zion David

Sarrerak

Sarrerak salgai daude Arbizuko Karrika tabernan eta Altsasuko frontoiko tabernan.

Merinok, hori bai, gogor izerditu eta gero. Partida oso parekatua izan zen, edonork irabazi ahal izan zuena. Neurketa gogorra izan zen, 326 pilotakada izan zituen. Nahiz eta Zubietak kolpe hobea izan eta Merino dominatu, ez zuen abantaila hori bere alde erabili eta, tamalez, errioxarra gailendu



Ezkurdiak Merino du aurkari gaur.

zitzaioren etxarriarrari. Derby sakandarrarik gabe geratu gara.

MAPFRE ALTSASU

TRAKTORE ASEGURUA
+ ERREMOLKEAREN ASEGURUA DOAN

HERIOTZA ASEGURUETAN
% 15 EKO DESKONTUA

J.A. Imaz Prim
Tel: 948 563 354 • Fax: 948 562 151
San Juan, 48 • ALTSASU • jimazpr@mapfre.com

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

IHESLARIAK ETXERAN

BILTOKI
taberna

tel. 948 467 876 Altsasu

Frontenisa


SAKANAKO EMAKUMEEN VI. FRONTENIS TXAPELKETA
Ikuskizuna hasi da

Gaur txapelketako 2. jardunaldia jokatu da Olaztin eta Etxarri Aranatzan

Aurreko asteburuan eman zitzaion hasiera Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarriko Gure Pilotaklubaren eta Olaztinako Palaarduradunen laguntzarekin antolatutako VI. Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketa. Bi mailatan jokatu da: 1. mailan (9 bikote) eta 2. mailan (9 bikote), Etxarri eta Olaztin. Hasierako ligaxkan 9 jardunaldi jokatu eta gero, ekainaren 21ean eta 22an finalerdiak jokatu dira eta ekainaren 28an edo 29an final handiak.

Emakumeen Frontenis Txapelketa.
2. jardunaldia

Lehen maila (Olaztin, ostiralean)
19:00etan: Eider - Laura / Edurne - Vanesa

19:30etan: Kristina - Maialen / Beronika - Maite

20:00etan: Ainhoa - Txaro / Leire - Oihane

20:30etan: Ruth - Yolanda / Mireia - Elena

Atsedena: Yanira - Maite

2. maila (Etxarri Aranatzan, ostiralean)

20:00etan: Maider - Leonor / Ane - Uxue

20:30etan: Izaskun - Mirentxu / Andrea - Izar

21:00etan: Marta - Maite / Uxue - Irati

21:30etan: Maria - Maider / Amaur - Irati

Atsedena: Jone - Uxue

Duatloia

Bueltan da Arbizuko Duatloia

IAZKO ETENAREN ONDOREN BIHAR 17. EDIZIOA JOKATUKO DA, LARUNBATAREKIN, 16:00ETAN

Iazko etenaren ondoren, Arbizuko udalak Arbizuko 17. Duatloia antolatu du biharko, larunbaterako. Udalak Sakanako Triatloi Taldearen, Sakanako Mankomunitatearen, Nafarroako Triatloi Federazioaren eta hainbat enpresa eta komertzioaren laguntza izan du, herritarren babesarekin batera. Proba Nafarroako Duatloi Txapelketarako eta Euskal Herriko zirkuiturako baliagarria da.

Ekitaldia astelehenean aurkeztu zuten Arbizuko kirol zinegotzi Juantxu Zabalak, Arbizuko alkate Miren Mendinueta eta Arbizuko zinegotzi Gorka Iriartek. 17. edizioa bete du Arbizuko probak. "Nafarroan beteranoena da eta Euskal Herri mailan zaharretakoa, Oñati eta Eibarkoarekin batera, errotuta dagoena. Horregatik berreskuratzeko ahalegina egin dugu" adierazi zuten Zabalak. Herritarrek proban inplikatu dira eta lehenengoz kintoak antolakuntzan izanen dira.

Helburuak: Arbizu, euskara eta kirola bulkatzea

Hiru helburu lortu nahi dira. Bate-tik, Arbizu eta Sakana ezagutaraztea. "Probak jende asko ekartzen du eta kirol-turismo moduan planteatzen dugu. Gainera, sarietan Arbizuko produktuak banatuko ditugu" azaldu zuten Zabalak. Bestetik, euskara bulkatzea. "Federaziokoe-kin harremanak euskaraz egin ditugu, kartelak eta publizitatea euskaraz egin ditugu, probako egunean esataria euskalduna izango da... euskarari arnagunea eman nahi

Sari arbizuarrak


Proba bukatuta sari banaketa egingen da Arbizuko plazan, eta ondoren, auzatea Aldabide elkartean, Arbizuko produktuekin. Probako antolakuntza lanetan 40 pertsona inguru ariko dira. Lehenengo gizonak eta emakumeak 150 euro, txapela eta Anastasio harategiko lotea jasoko dituzte, bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak 50 euro. Arbizu, Flores eta Laket-en produktuak banatuko dira irabazleen artean. Horretaz gain, 23 urtez azpiko, junior mailako eta beterano mailako lehen gizon eta emakumeak Arbizuko produktuen loteak jasoko dituzte. Lehen sakan-darrek, gizon eta emakumeak, bi pertsonendako afaria jasoko dute, Jubilatuetan eta Baxerri jatetxean. Horretaz gain parte-hartzaile guztiak Juananeko gazta puska bat jasoko dute.

diogu" gaineratu zuten kirol zinegotziak. Eta, jakina, kirola bulkatzea. "Sakanan txirrindularitza eta atletismozale ugari daude, eta kirolean aritzeko aukera sustatu nahi dugu" nabarmendu zuten Zabalak.

No drafting

Zirkuituaren aldetik, ez dago nobedaderik. Boxak Kale Nagusian egon dira, ikusleek trantsizioak gertutik ikus ditzaten. Bestetik, txirrindulari proban duatletek ezingo dute aurreko edo ondokoaren gurpilari lotuta joan. Hau da, ezin da draftinga egin. "Besteen lanaz ezingo da aprobetxatu" nabarmendu zuten Zabalak. Eta gainera, nobedade moduan, txirrindulari uzteko ez da denbora mugarik egongo.

Ibilbidea: 8 km-32 km-4 km

Larunbatean 16:00etan abiatuko da proba, plaza paretik. Herrian barrena 4 kilometroko zirkuitu bat pres-tatu dute, eta hasieran zirkuitu horri bi buelta eman beharko zaizkio korrika (8 km). Ondoren, boxetan bizikleta hartu eta 32 kilometro egingen dituzte, Lizarragako Kate-ra igo eta Etxarritik barrena Arbizu-ra heltzeko lana bitan egingez. Bukatzeko, txirrindulari boxetan utzi eta herriko zirkuituari buelta bat eman diote korrika (4 km). Proba polita, baina gogorra.

Probaren segurtasuna bermatzeko Kale Nagusia, Uhalde, Aker-runtza eta Fernando Urkia kaleak itxiko dira, eta bizikletaren eremua jokatzeko den bitartean ez

Felix Benjumea 10.a San Adriango duatloian

Larunbatean San Adriango Duatloia jokatu zen (3,5 km korrika, 12,5 km bizikletan eta 1,5 km korrika). Saltoki taldeko Martin Ignazio Muller nagusitu zen (1:13:42) ehundik gorako partaideen artean. Sakana Triatloi Taldeko kideak oso ongi ibili ziren. Felix Benjumea 10.a izan zen (1:17:14), Francisco Javier Gomez 15.a (1:18:23), Sergio Garcia de Eulate 22.a (1:20:28) eta Juan Carlos Gomez 46.a (1:25:28).

Sakana bosgarrena Eguesibar-ko taldekako erlojupekoan

Apirilaren 13an Eguesibarko Duatloia jokatu zen Sarrigurenen, taldekako erlojupekoa (5 km korrika, 21 km txirrindulari eta 2,5 km korrika). Saltoki taldea izan zen garailea (1:00:22). Sakana Triatloi Taldea 5.a sailkatu zen (1:04:58), Javier Borregak, Juan Carlos Gomezek, Sergio Garcia de Eulatek eta Francisco Javier Gomezek egindako lanari esker.

Informazioa

www.sakana-mank.com eta www.navarratriathlon.com.

da trafikoa moztuko. "Boluntarioei kasu egiteko deia egin dugu. Eta etxeko txakurrak dituztenei txakurrak kontrolpean izateko deia" nabarmendu dute.

Txirrindularitza

Kadeteen proba etzi Altsasun

11:00etan, Zumalakarregi plazatik abiatuta

Igandean 26. Burunda Txirrindularitza Kluba Trofeoa jokatu da Altsasun, kadeteen mailako 50 km-ko lasterketa, goizeko 11:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik abiatuko dena.

Altsasutik abiatu eta gero, txi-

rrindulariak Etxarri Aranatzeko joango dira, hango errotondan buelta hartu eta Ziordiraino heltzeko. Han buelta hartu eta Olaztin portuan gora egingo dute, Altamiratik jaisteko. Atzera ere Etxariraino helduko dira, buelta hartu eta Altsasuko helmugaraino iristeko.

Afizionatuak Arabako 2 egunetan

Asteburuan 23 urtez azpiko afizionatuek Arabako 2 egunak Challengea izango dute jokoan. Larunbatean taldekako erlojupekoa jokatu da, Oionetik Bastidaraino, 16:00etan abiatuta. Eta, igandean, 118,5 km-ko lasterketa, goizeko 10:00etan Gasteizen hasi eta bertan despidituko dena. Rural Kutxa talde sakan-darra bertan ariko da.

Bestalde, aipatu taldeko Carlos Jimenez hirugarrena izan zen igandean Duranan jokatu den lasterketan. Eta masterrei dagokionez, Orquin taldeko Hector Guerrero irabazi du Nafarroako Master Itzulia. Irurtzungo etapan, aldiz, David Romero nagusitu zen.

Bukatzeko, profesionalean Egoi Martinez 73.a izan zen Liega-Bastoña-Lieja proban. Imanol Erbiti erretiratu egin zen.

arregui
eraikuntzak

Eraikitako 265m²ko pabilioia + solairuareta eta 1700m²ko lur sail urbanizatu erabilgarria Olaztin



San Juan 52 behea · ALTSASU
T. 948 562 008 F. 948 468 463
www.construccionesarregui.com
admon@construccionesarregui.com



Igoa
orroindegia

948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Aranatz

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



Mendi txirrindularitza

Patxi Cia jaun eta jabe Izurdiagan

Iturrotz Txirrindularitza Taldeak antolatuta, Rural Kutxa BTT Kopako hirugarren proba jokatu zen igandean Izurdiagan, San Juan BTT Saria. Zapardi mendian barneratzen zen 5,5 km-ko zirkuitu zorrotza osatu behar izan zuten txirrindulariek: kadeteek 3 itzuli, juniorrek, emakumezkoek eta beterranoek 4 itzuli eta 23 urtez azpikoek, eliteek eta masterrek 6 itzuli.

Zirkuitua oso goera onean zegoen eta azkar joan zen proba, zaleen gozamenarako. Aurreikusitako moduan Patxi Cia faboritoak (MSC) ez zuten hutsegin. Nahiz eta Conor-Saltokiko Diego Latasa saiatu, helmugara bakarrik heldu zen Cia (1:38:39). 48 segundo atera zizkion



Bikerrek malda gogorrekin egin behar izan zieten aurre. ERKUDEN BARROSO

Latasari (1:40:27). Asier Arregik osatu zuen podiuma (1:43:12).

Sakandarrak
23 urtez azpikoetan Migel Sanzol

izan zen onena, helmugan 6.a sartu eta gero (Conor-Spiralcar, 1:45:21). Kategoria horretan bi sakandar lehiatzen dira. Mikel Otxoa (Conor-Spiralcar) 5.a sailkatu zen aipatu kategorian (1:55:05), helmugan 22.a izan eta gero, eta Mikel Irigoien (Rueda Libre Club Ciclista), aldiz, 10.a (1:49:48), helmugara 40.a helduta.

Emakumezkoetan Olatz Odrizolak ez zuen areririk izan (1:06:18). Juniorretan Matias Rekalde gailendu zen (1:13:01), kadeteetan Javier Sein (1:00:51), master 30etan David Garcia (1:48:00), beterranoetan Jesus Angel Espada (1:14:51) eta haurrentan Aitor Izkuere (24:04).

Mendi lasterketa

Oliver Moreno
Aloñan parapentzez

Aloñako Igoera (Oñati, 15,5 km, 2200 m desnibela. Korrika eta parapentzez)

1.	Javier Olaberria	1:16:28
25.	Oliver Moreno (parapentzez)	1:29:55
28.	Aritz Munarriz	1:30:09
48.	Mikel Berastegi	1:33:24
60.	Patxi Rubio	1:35:29
83.	Iraitz Senar	1:38:42
151.	Arantzazu Larrañaga	1:48:49
202.	Luis Tome	2:00:49

Probaberezia izan zen igandean Oñatin, 9. Aloñako igoera. Aldi berean mendi lasterketa eta parapente lasterketa zen. 233 parte hartzaile izan ziren, eta gehienek korrika osatu zuten proba. Orozkoko Javier Olaberria izan zen txapelketa (1:16:28). Proba bukatu zuten 7 sakandarren artean 6 korrika ibili ziren eta horien artean Aritz Munarriz eta Arantzazu Larrañaga izan zen azkarrena (28.a, 1:30:09). Oliver Moreno altsasuarrak parapente modalitatean hartu zuen parte eta 4.a izan zen, probako sailkapen orokorrean 25.a (1:29:55). Beñat Zubillagak irabazi zuen parapente txapelketa (1:23:56). Emakumezkoetan Maite Maiora izan zen garailea, helmugan 17.a sartu eta gero (1:26:46). Sakandar bakarra, Arantzazu Larrañaga, 151.a sailkatu zen (1:48:39).

ANDER UNZURRUNZAGA
2. BETERANOIA URNIETAN

Igandean Urnietako mendi lasterketa jokatu zen (21,6 km). 319 korrikalari iritsi ziren helmugara, Jokin Lizeaga buru zela (1:49:49). Ander Unzurrunzaga etxarriarrak lasterketa ona egin zuen eta 14.a heldu zen helmugara, probako bigarren beterranoa (2:04:54). Jose Javier Maiza etxarriarra 21.a izan zen (2:08:52) eta David Irigoien urdiaindarra 296.a (3:11:01). Igandean bi lasterketa jokatu dira: Arratzu-Urdaibai (30 km) eta Untzeta igoera (10,5).

Atletismoa

Javi Moreno
bigarrena Erreterian

Igandean San Markos igoera jokatu zen Erreterian. Herritik abiatuta San Markos gotorlekuraino doa proba, aldapa gora, 5,5 km osatu arte. Cesar Sanz izan zen azkarrena, eta Javi Moreno altsasuarrak bigarrena. Emakumezkoetan Ana Gonzalez nagusitu zen.

Areto futbola

SAKANAKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA-IKER KIROLAK SARIA

Finala: Ass-Apple vs
Auzomotojorik

Sakanako Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolak sariko finalerdia jokatu ziren aurreko asteburuan. Lehen finalerdian Ass-Apple taldeak 2-1 hartu zuen menpean Pipe-roxki, finalerako sailkatuz.

Bigarren finalerdian, aldiz, emozio gehiago egon zen, Arezpek eta Auzomotojorik bana berdindu zutelako. Horrela, penaltze-

tan erabaki behar izan zen zein taldek egingo zuen aurrera. Penaltzetan Auzomotojorik izan zen finalerako txartela lortuz.

Finala maiatzaren 4an

Ass-Apple eta Auzomotojorik taldeek maiatzaren 4an, jokatuko dute finala, Altsasuko Zelandi kiroldegian, eguerdian.

Motoziklismoa

Alex Mariñelarenak
Espainiako Abiadura
Txapelketa helburu

ASTEBURUAN HASIKO DU DENBORALDIA, KATALUNIako ZIRKUITUAN



Mariñelarenak 20 urte ditu.

Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarra bere BMW motorrari azken ukituak ematen dabil, asteburuan Catalunya Zirkuituan hasiko den Espainiako Abiadura Txapelketan (CEV) ariko baita.

Iaz bigarrena izan zen

Bigarren urtez Espainiako Txapelketako Moto2 mailan ariko da irurtzundarra, Targobank Motorsport taldearekin. Denboraldia burutzeko babesleak lortu ditu: Concepto, Goya Motorrad eta Marcotranssek babestuko dute Targobank Motorsport. Espainiako Abiadura Txapelketak 7 proba izanen ditu eta 7 horietan lehiatuko da Alex, txapelketa irabazteko asmoekin. Iaz debutatu zuen eta primerako denboraldia egin zuen Mariñelarenak. Espainiako Txapelketako goiko postuetan egon zen, baina azken lasterketan erori egin zen eta podiuma egiteko aukera galdu zuen. 5. postuan despeditu zuen CEV txapelketa.

35 pilotuk eman dute izena igandean Kataluniako Zirkuituan jokatu den Moto 2 mailan aritzeko, tartean irurtzundarrak. Ostiralean entrenamendu libreak dituzte, larunbatean entrenamendu ofizialak, eta igandean lasterketa (zirkuituari, 4,7 km, 17 itzuli).

Triman play offetan

Lau partida garaipenik gabe bukatu ondoren, Triman Navarra Xotak hiru puntuak lortu zituen sailkapenean azkena den Puertollanori 2-1 irabazi eta gero. Irurtzungo taldea jaun eta jabe izan zen eta gol aukera ugari izan zituen, baina jaurtiketak zurtoinaren kontra joan ziren bost aldiz. Hala ere, Irurtzungo taldeak garaipenarekin despeditu zuen lehia.

Triman 6.a

Ohorezko mailan Bartzelona da

liderra, 62 puntuekin, eta Triman Navarra Xota 6.a da, 41 puntuekin. Triman Navarra goiko postuetan mantentzen da eta titulua lortzeko play off-etarako sailkatu da, lehen 8 taldeak sailkatzen baitira.

Manacor hurrengo arerioa

Bi jardunaldi falta dira liga despeditzeko. Asteburuan Fisiomedia Manacorren kontra jokatu du Triman Navarrak, eta, hurrengo asteburuan, Marfil Santa Coloma hartuko du.

FRONTOIKO TABERNA

Plater konbinatuak
Bazkariak eta afariak
enkarguz

948 469 138
ERKUDEN 4 · ALTSASU

TxikiTxo
haurren arropa eta lentzeria

3D efektuak
3D efektua

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

BUJANDA okindegia

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

MAITE
arrandegia
Arrain freskoak, egunero
Donostiako antxoak

948 467 385 • 607 973458
La Paz 3 • ALTSASU

NEREA
ILEPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaldea)
LAKUNTZA. TFN: 948 576 331

Futbola	
3. MAILA	
34. JARDUNALDIA	
LAGUN ARTEA 2 - AGOITZ 5	
Nahiz eta Lagun Arteak bina berdindu, Gascori eta Xabati esker, lakuntzarrek defentsa akats nabarmenak egin zituzten eta Agoitz 2-5 nagusitu zen.	
Saillkapena >>	
1. Mutilbera	74 p
12. Lagun Arteak	44 p
Asteburuko jardunaldia	
PAMPLONA - LAGUN ARTEA	
(Larunbatean, 17:00etan, Lizasoainen)	
ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa	
28. JARDUNALDIA	
ETXARRI ARANATZ 1 - DONEZTEBE 1	
ALTSASU 6 - ULTZAMA 0	
Partida oso lehiatua, Etxarrik eta Doneztebek bana berdindu zuten. Nahiz eta gol aukera ugari izan, Etxarrik ez zuen garaiaren gola sartu. Bestalde, Ultzama 10 jokalarirekin agertu zen Altsasura eta altsasuarrek egoera ongi baliatu zuten, golak bata bestearren atzetik sartu baitzituzten.	
Saillkapena >>	
1. San Juan	67 p
8. Etxarri Aranatz	31 p
9. Altsasu	27 p
Asteburuko jardunaldia	
ULTZAMA - ETXARRI	
(Larunbatean, 11:30etan, Lakuntzan)	
BETI KOZKOR - ALTSASU (Igandean, 12:00etan, Lekunberrin)	
ELOMENDIKO TXAPELKETA	
24. JARDUNALDIA	
EGIARRETA 2 - ZALDUA 0	
DERBIA EGIARRETARENDAKO. Elomendiko Futbol Txapelketan aritzen diren bi talde sakandarren arteko derbia, Egiarreta garaile.	
Saillkapena >>	
1. Unziti	34 p
5. Zaldua	23 p
6. Egiarreta	22 p
Asteburuko jardunaldia	
ZALDUA - ELOMENDI	
APOLO - EGIARRETA (Igandean, 12:00etan, Noainen)	

Saskibaloia	
EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA	
2. MAILA AUTONOMIKOA. 2. FASEA	
ALTSASU CBASK 44 - NOAIN 42	
Saillkapena >>	
1. Cantolagua	15+5 p
8. Altsasu CBASK	9+1 p
LIGA DESPEDITU DA. Altsasu 8.a sailkatu da. Asteburuan finala jokatu duite Cantolagua eta Navarra Villosladak.	
GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA	
1. MAILA AUTONOMIKOA. 2. FASEA. 9-11 POSTUAK	
ALTSASU CBASK 52 - ARDOI 50	
Saillkapena >>	
1. Liceo Monjardin A	4+2 p
2. Altsasu CBASK	3+1 p
LIGA DESPEDITU DA. Altsasuk lan polita egin du eta lehen maila autonomikoan 10. postuan sailkatu da.	
*OHARRA: Gaintzeko taldeei buruzko informazio +: www.guaixe.net.	

Sokatira

Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketari Etxarrin emango zaio hasiera

Igandean, 11:30etan, Etxarri Aranazko pilotalekuan. SAKANA eta andra mari taldeak ariko dira

Igandean abiatuko da Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketa, goizeko 11:30etan, Etxarri Aranazko pilotalekuan (sarrera doan). Bertan lau tiratzailez osatutako taldeak lehiatuko dira, hiru kategoriatan: emakumezkoak (260 kg), kadeteak (290 kg) eta gizonezkoak (320 kg). Txapelketa lau jardunalditan jokatu da.

Sakanako 3 talde ariko dira. Emakumezkoen kategorian Sakanako Sokatira Taldeko neskek, beste 3 talderekin batera: Berriozar, Basaburua-Imotz eta Txantrea. Aurten soilik txapelketa honetan ariko da Sakana, jende faltan daudelako. Horregatik gogotsu aterako direla adierazi digu Nerea Lizarraga entrenatzaileak.

Bestalde, kadeteen kategorian Andra Mari ikastolako bi talde lehiatuko dira: Andra Mari eta Berriain, Berriozar eta Ultzama taldeekin batera. Jexus Senar prestatzaileak adierazi digunez, lan polita egiten saiatuko dira. "Gustura dabilta neska-mutikoak. Talde bakoitzean bospasei kide daude, eta



tiraldietan txandakatzen joango gara". Azkenik, gizonezko kategorian 6 talde lehiatuko dira, baina bertan ez dago talde sakandarrik (Amaiur A, Amaiur B, Txantrea A, Txantrea B, Berriozar eta Basaburua-Imotz).

Sakanako taldeak

Sakana (emakumeak): Naiara Mundiñano, Arantza Serrano, Jaione Ganboa, Garazi Retegi eta Nerea. **Andra Mari (kadeteak):** Oihan Karasatorre, Izai Mauleon, Jurgi Kintana, Gari Satrustegi, Adrian Joao eta Asier Estarriaga. **Berriain (kadeteak):** Xabier Basabe, Nahia Nuñez, Janire Cerviño, Andrea Ansotegi, Mirari Imaz, Oihana Gabirondo eta Garazi Artieda.

Gimnasia erritmikoa

Puntako gimnastak

Larunbatean, 15:00etan, Iskiza-Disnaval Txapelketa jokatu da Altsasuko Zelandin. Estatu mailako gimnastak ariko dira

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmiko Taldeak bihar, larunbatean, 15:00etan, Iskiza-Disnaval Txapelketa antolatu du Altsasuko Zelandi kiroldegian. Bertan estatuko gimnastak lehiatuko dira, modu indibidualean, Iskizako gimnastak barna. Puntako gimnastak lanean gertu ikusteko aukera eskaintzen digu, beste batez, Iskiza Taldeak.

Gimnastak uztaiarekin, pilotarekin, mazoekin eta zintarekin arituko dira lanean. Mota guztietako akrobazia, mugimendu eta koreografiak egingen dituzte, musika jarraiki. "Oso txapelketa polita denez, jendea lehiaketa ikustera etortzera animatzen dugu. Ez zaie damutuko" dio Iskizako monitorea Amaia Olmosek.

Bestalde, aurreko larunbatean Iskiza Sakanako Liga burutu zen, Olaztiko kiroldegian. Iskizako eskola mailako gimnastak aritu ziren,

Mendia

Bihar Ibilaldia

BIHAR JOKATUKO DA 24. SAKANAKO IBILALDI HANDIA, IRURTZUNEN

Bihar, goizeko 6:00etan, Hiru Baselizak ibilbidekoak aterako dira, eta 7:00etan, Gaztelu-Larrazpil ibilbide laburrekoak

Irurtzungo Iratxo mendi elkarteak antolatuta, bihar Sakanako 24. Ibilaldi Handiari ekingo diote mendizaleek. Nobedade moduan, goizeko 6:00etan ibilbide luzea, Hiru Baselizak izenekoa, osatuko duten mendizaleak aterako dira, eta 7:00etan, aldiz, ibilbide laburra, Gaztelu-Larrazpil, aukeratu dutenak. Proba ez lehiakorra da eta Nafarroako eta Euskal Herriko mendi ibilbideen zirkuituan sartuta dago.

Bi ibilbide

Ibilbide luzean (Hiru Baselizak, 55,6 km-3000 m desnibela) San Donato, San Migel eta Trinitatea baselizak lotuko dituzte mendizaleek, Sakanari buelta ederra emanda. Hau da mendizaleek gehien maite duten aukera. Aurten, Aralarko jaitsiera Atatik egingo dute. Gaintzean, ibilbidea betikoa da. Goitik behera aldatu dena, ordea, ibilbide laburra da. Gaztelu-Larrazpil ibilbidea (31,2 km-1150 m desnibela) prestatu dute Iratxokoek, laburragoa eta horren gogorra ez dena.

Ibilbidea bukatzerakoan diplo-



400 mendizalek eman dute izena da-goeneke. Gehiago espero dira.

Izena emateko

Probaren egunean izena eman daiteke (12 euro), Iratxo elkartearen, goizeko 5:00etatik aurrera.

www.iratxoelkartea.com

Sakanako Ibilaldi Handiaren informazio guztia.

ma eta oroigarria jasoko dute mendizaleek eta mendi materiala zozketatuko da. Gainera, masajea hartzeko aukera izango dute Surya masaje eskolari esker. Dena antolatzeko Iratxo elkarteak 50 boluntario mugituko ditu.

Eneritz Solozabal txapeldun



Iskizako gimnastak Nafarroako Kirol Jokoen (NKJ) Gimnasia Erritmiko txapelketan lehiatu dira, martxoan eta apirilean. Finalean emaitza politikak lortu zituzten sakandarrek. Esaterako, Benjamin B mailan, esku libreetan, Eneritz Solozabal lehena sailkatu zen. Kimuen B mailan, pilotan, Saioa Lopez hirugarrena izan zen eta kimuen A mailan, pilotan, Irune Argüelles hirugarrena sailkatu zen eta Argider Orabengoa laugarrena. Zorionak guztiei.

taldeka. Aipatu lehiaketa Altsasu, Arbizu eta Olaztiko herrien artean jokatu zen, Iskizako gimnasia

erritmikoa eskaintzen duen herrietan, hain zuzen. Oso gustura pasatu zuten gimnastak.

**ZORROZTU
ZURE
ETORKIZUNA**

Goierri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldia** gonbidatzen zaitu. Ezagutu ezazu **Lanbide Heziketako** gure eskaintza.

• Erdi Mailako zikloak • Goi Mailako zikloak • HLPP - PCPI

Maiatzak 4, larunbata, 10:00etan

www.goierrieskola.org

Zeure begiz ikus ezazu.  Klik batekin informa zaitetz.



Goierri eskola

Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062

kultura >>

Ausartu Altsasuko **maiatzeko antzerki eskaintza**rekin

Tarima Beltza taldeak Teatreves III. antzerki amateur zikloa antolatatu du

Bikomediak eta drama batek osatzen dute *Teatreves*, Altsasuko III. antzerki amateurko zikloa. Tarima Beltzako Juan Manuel Herrero eta Mertxe Herrero haren berri eman zuten herenegun. Taldeak antzerki amateur eskaintza berretsi du, hirugarrenez. Izan ere, taldean publikoaren erantzunarekin pozik daude. Emanaldi bakoitzeko 15 sarrera herriko eragileen artean banatuko dituzte: "publiko berriari zabalteko eta gizarteratzeko".

Oraindikere *Bienvenidos a gira-*

sol obraren emanaldi eskaintzen ari da Tarima Beltza. Berriki Lizarran eman zuten eta federazioaren barruan egotean emanaldi gehiago eskaini dituztela azaldu zigun. Bestalde, taldea Haize Berriak-ekin elkarlanean aritu da. Herrero, bestalde, nabarmendu egin zuen Iortia kultur guneak eskaintzen duen azpiegitura. "Etortzen diren talde askok espazioagatik zoriondu egiten gaituzte".

Udalaren izenean Hasier Gonzalez zinegotziak Tarima Beltza taldea zoriondu egin zuen zikloa antolatzeagatik. Herrian halako ekimenak antolatzen dituzten taldeak izatearen garrantzia azpimarratu

Sariak

Emanaldi bakoitzaren ondoren, sorpresa-opari bana zozketatuko da ikusleen artean. Sarrerekin Altsasuko jatetxeetan deskontua eskuratzeko aukera izanen da.

Sarrera

Emanaldi bakoitza: 5 euro. 3 emanaldietarako txartela: 12 euro.

zuen eta altsasuarrak "zikloa aprobetxatzera eta ongi pasatzera" animatu zituen. [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)



Egitaraua

Eguna eta ordua	Antzezlanak	Taldea
Maiatzaren 11n, 20:30ean	Geriatraco casi perfecto	Karretabidea
Maiatzaren 18an, 20:30ean	Esta noche teatro	Jus la rocha (Errotxapea)
Maiatzaren 25ean 20:30ean	Bodas de sangre	El bardo (Atarrabia)

bazterretik

Ana Senar Lasa

Astra, beste adibide bat

Hitz hauekin definitzen dute Astra zer den beraien webgunean: Astra kulturarako fabrika soziala da: arlo publikoaren kudeaketan jendartaren parte-hartze zuzena bultzatzen duen espazioa. Astrak kulturaren ikuspegi zabala lantzen du; pertsonen eta taldeen ahalmen sortzailea eta soziala dira bere oinarri eta helburu. Kulturaren ideia hau ez da mugatzen ekoizpen artistikora soilik; ekimen soziala, pentsamendu kritikoa eta esfera publikoaren demokratizazioa bilatzen duten ideien eta ekintzen hedapena ere barne hartzen du.

Pasa den abenduan inauguratu zuten Astra eta hilabete gutxi hauetan zertan jardun diren jakiteko beraien webgunea (astragernika.net) kuxkuxean ibili naiz: drupal ikastaroa eman dute, bisita gidatuak antolatu dituzte, kopiloto izateko ikastaroa eskaini



dute, era askotariko hitzaldiak egon dira, kontzertu eskaintza zabala, ipuin kontalariak haurrentzat, auzolanak antolatu dituzte, umeentzako pintura ikastaroak, erakusketak... Ikus-entzunezkoak izeneko atalean hainbat bideo aurkituko dituzte; hauek ikusi eta gero, Astra zer den hobeto ulertuko duzue. Kudeatzeko moduak hamaika izan daitezke; Astraren kasua beste adibide bat da. Kultur espazioak martxan jartzeko prozesuak luzeak izan ohi dira eta erakunde publikoen eraginkortasuna

ezbaian geratzen da askotan. Nola edo hala, inaugurazio ekitaldira iristen gara eta behin eguna pasata, zer? Urrutira joan gabe gertu asko ditugunak begiratzea baino ez dago. Espazioak bai, baina atea eta pertsianak itxita. Ziur nago gutariko askok behin baino gehiagotan pentsatu dugula zailena ez dela espazioak edukitzea, baizik eta horiek edukitzea, baizik eta bizirik mantentzea. Eta helburu hori errealitate bilakatze-ko noski, lan handia egin beharra dago!

Udaberriko dantzaldia



Espluseko (Hueska) eta Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) dantzariekin batera parte hartu zuten Orritz dantza taldeko kideek Udaberriko Dantza Jaialdian. Irurtzongo kaleetan euren burua kalejiran azaldu ondoren, taula gainean haien dantza trebetasuna erakutsi zuten, frontoira jende asko erakarri zuen jaialdian. Ondoren 3 taldeetako 120 dantzari eta laguntzailek elkarrekin afaldu zuten eta antolatua zegoen Folklore festarekin gaua luza zuten zitzaien.

Nafarroako egoerari eta aldaketari buruzko antzezlan satirikoa

Larunbatean, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Kaka burutik behera izenburua duen antzezlanak Nafarroan eskuineko politikek utzitako gizar-tearen ispilua izan nahi du eta, bestetik, herrialdeak behar duen aldaketari buruzko gogoetarako espazio dibertigarria sortu nahi du. Nafarroako Euskal Herria Bildu koalizioak sustatu duen ikuskizuna "aldaketaren aldeko aliantza soziala iruten" jarraitzeko bide bat izan nahi du, koalizioak badakielako Nafarroan "adostasun zabalak behar ditugula, desberdinen arteko akordioak".

Umorearen bidezko salaketa

Javier Esteban, Ainhoa Juaniz eta Isabel Azpiroz aktoreek "umorearen bidez ustelkeria, nagikeria eta oinarriko giza eskubideen okertzearen karikatura bat" egingo dute; baita aldaketa ereduaren inguruan gogoeta egin ere. Altsasuz gain, maiatzaren 17an Irurtzongo kultur etxean ikusteko aukera izanen da.

belexe *online*
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiraleko 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, Marian Mendiola, Peio Lazkoz...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

Zuloak eta Stupenda Jones, zuzenean

Gaur, ostirala, 22:30ean Olatzagutiko Maisuena gaztetxean

Arrate Rodriguezek eta Fermín Muguruza emakume musikarien ekarpena ikusarazteko ekarpena izan zen *Zuloak* dokumentala. Muguruza berak “dokumental faltsu” bezala deskribaturikoaren bidez Zuloak musika taldearen ibilbidea jarraitu zuen: eratze prozesuaren, entseguen eta kontzertuen irudiak bilduz. Taldeak, ordea, pantailatik benetako eszenatokietara egin du salto eta bira luzea egiten ari da. Olatzagutiko Maisuena dinamikoan Zuloak gaur jotzen izanena da. Rock doinuak zabalduko dituzte. Haiekin batera, Stupenda Jones ariko da, hainbestetan oholtza hori zapaldu duen etxeko taldea. Olatzagutiko Gazte Asanbladak iragarri du kontzertua puntual hasiko dela.

Frantziar literaturako obra handia euskaraz

Meaunes handia Alain-Fournier idazlearen obra euskaraz irakurri daiteke dagoeneko. Monika Etxebarria Arinabarreta arbizuarrak itzuli du liburua, Literatura Unibertsala bildumaren barruan Alberdaniak, Ereinek eta Igelak elkarlanean argitaratu dutena.

Izenburua liburuko pertsonaia nagusiaren izen txikia da. Etxebarria Belexe Irratian (FM 107,3) argitu duenez, “pertsonaia berezia da, 18 urte ingurukoa. Handia fisikoki eta handia bere gelakideengan sortzen duen eraginagatik. Abenturako grina, liderra eta bestelako ezaugarriak nerabeen artean per-

tsona bat berez egiten dutena”. Gaztaro eta helduera horren artean dauten protagonistak “helduaroan sartu behar dute, baina ez dute nerabezaroa erabat atzean utzi nahi”.

Liburua “irakurterraza da eta momentu batean harrapatu egiten du, suspensea, zer gertuko da...” azaldu du Etxebarria Belexe Irratian (107,3). “Abentura liburu bat bezala kontatuta dago. Mutiko horren bizipenak. Egiazko bizipenak dira, baina berak nolabait fantasia edo abentura bihurtzen ditu”. Nerabeendako liburu gisa saldu izan bada ere itzultzaileak azaldu du helduendako gauza interesgarriak baduela *Meaunes han-*

dia-k. “Badu zer bait” ziurtatu du.

Etxebarria azaldu duenez, idazlea 28 urterekin hil zen, lehen mundugerra hasi eta berehala; “ez zion betarik eman beste ezer idazteko. 1913an argitaratu zenetik oso arrakastatsua izan da. Milioika ale saldu dira, mundu osoan gainera; hizkuntza askotara itzuli da, batzuetan itzulpen bat baino gehiago ditu”. Halako arrakasta izanda euskaraz izatea merezi duela irizti dio Etxebarria, eta itzultzerakoan aparteko zailtasunik ez duela izan.

Frantsetik itzultzen du arbi-zuarrak, bainagaztelaniazko bertsoaren babeserabiltzen du. Etxebarria azaldu digu Literatura Unibertsala bildumako arduradunek tituluzerren-

da bat lehiaketara ateratzen dutela: “Frantsetik euskaratu beharreko hiruzpalau liburuz euden eta honek eman zidan atentzioa”. Gaineratu duenez, “Epaimahai batek aurkeztutako laginak aztertzen ditu. Lehiaketa bidez egiteak dituenaren bermea ematen dizu”.

+www.guaixe.net



Gogoko liburu eta ilustratzaileak aukeratuak

Nazioarteko Literatura Egunaren inguruan, aurreko ostegunean Juul kanpainako hauteskundeak egin ziren ikastoletan. Kanpaina horren bidez Euskal Herriko ikastoletako haurren irakurketaren zaletasuna bulztatu nahi dute. Haur eta gazte guztiek liburu eta ilustratzaile bat hautatzen dute hauteskunde prozesu bat bertatik bertara ezagutzen dute, gainera. Sakanako ikastoletan 850 ikaslek eman zuten botoa.



Sakanako emaitzak

Adina	Egilea	Izenburua	Botoak
3-6 urte (180 boto)	Il Sung Na	Brrrrr Neguko liburua	19
	Mario Ramos	Neu naiz azkarrena	11
	Castillo Suarez	Erikaren ttiliak	11
	Batzuk	Hiru txerrikumeak	9
6-8 urte (124 boto)	Castillo Suarez	Erikaren ttiliak	28
	Mixel Murua	Andres Urdaneta. Esploratzaile ausarta	14
	Charles Perrault	Basoko loti ederra	7
8-10 urte (94 boto)	Geronimo Stilton	Geronimo Stilton. Nostrasagusen eskribu misteriotsua	6
	Jeff Kinney	Gizajo baten egunkaria. Egun zakurrak	5
	Rene Goscinny	Asterix eta Obelixen urtebetetzea. Urrezko liburua	4
	J. Ignacio Treku	Harrotxu eta bere lagunak. Gure kirolak.	4
10-12 urte (108 boto)	Toti Martinez de Lezea	Nur eta dortoken uhartea	13
	Toti Martinez de Lezea	Nur eta etxe sorgindua	6
	Toti Martinez de Lezea	Nur eta oihan misteriotsua	5
	Toti Martinez de Lezea	Nur eta irlandar gnomoa	5
12-16 urte (194 boto)	Joxantonio Ormazabal	Kittano	34
	Jordi Sierra I Fabra	Ispiluen gainean lotan	26
	Fernando Morillo	Ortzadarra sutan	10
Ilustratzaileak (150 boto)	Estibalitz Jalon		33
	Eider Eibar		30
	Juan Luis Landa		28
	Mikel Valverde		19

Aizpe Taldea, errepertorio anitzarekin

Igandean, 19:30ean Altsasuko elizan

Joa zen urtean talde gisa mustu ziren tokira, Altsasuko elizara, bueltatuko dira etzi Aizpe Taldeko kideak. Dozena erdi emakume osatzen dute talde kantaria: Puri Alzelai, Rosa Igoa, Olibi Galparsoro, Cristina Rubio, Juli Alvaro, Uhartea Arakilgo Nekane eta Arbizuko Irantzuren

ordez Altsasuko Ana Mari batuzaie. Guztiak Etxarri Aranazko musika eskolako ahots-technikako irakasle Itziar Maizek zuzenduko ditu.

Emanaldia musika sakroarekin zabalduko dute. Segituan zarzuela kantatu bat, herri kantak edota portugesezko abestiak aletuko dituzte. “Errepertorio anitza, musikan gure tokia bilatzen ari

baikara”. Halaxe jakinarazi digu Alvarok. Emanaldia prestatzeko asteroko entseguak eta Maizekin bakoitzak hartzen dituen eskolez gain aparteko entsegua egin dute. Alvarok adierazi duenez, edozein interesatueendako atea zabalik ditu Aizpe Taldeak, haiekakoren batekin harremanetan jartzea besterik ez da egin behar.



APIRILAK 22 - MAIATZAK 5 ERAKUSKETA

URAREN GAZTE FOROA

"ARALARKO MIKEL DONEA (I)" BHI

10ria

Frontoia zaharbidetx, 31800 - Altsasu - 948564272 - 10ria@altsasu.net - www.facebook.com/10ria

APIRILAK 27 LARUNBATA - 19:00

KAKA BURUTIK BEHERA!

EBILDU

ANTZERKIA

Javier Esteban

Aimhoa Juantx

MAGO

3€

OZ, UN MUNDO DE FANTASIA

IGANDEA 28 17:00

CONCORDIA 2012 PREMI DEL PÚBLICO TIFF

5€

EL LADO BUENO DE LAS COSAS

(SOLVER LENTINO PLATINO)

EL LADO BUENO DE LAS COSAS

OSTIRALA IGANDEA

26 22:00 28 20:10

Sorretarak salgai: teihatio - 012 - entrados.com

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 48%	euria: 92%	euria: 80%	euria: 88%	euria: 80%	euria: 50%	euria: 20%
Min: 9 Max: 11	Min: 3 Max: 5	Min: 1 Max: 8	Min: 2 Max: 10	Min: 4 Max: 9	Min: 3 Max: 10	Min: 3 Max: 13

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	22.1	-0.6	1.8
Altsasu	21	0	6.7
Aralar	13.8	-1.7	14.6
Urbasa	18	-2	7.2

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
2	10	18	25

Acrycolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253
Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI
Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

diseinua inpresioa

Gazte nahiz zahar, guztion neurriko diseinu lanak

948 564 275 argi@guaixe.net

>> 11

galdera

Peio Lazkoz

Hargina

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Guaixe erakusleiho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakusleihoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo **Bierriken bulegora** ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

1. Non egiten zenuen lan?
Irurtzunen lan egiten nuen, Inasan. 25 urte eman nituen lanean han eta aurreko urtean itxi zen. Orain langabezian nago; paro obrero esaten dena.

2. Langabezian gelditu zinenen, nola sentitu zinen?
Oso gaizki sentitu nintzen. Sekula egon ez naizelako paroen eta horrela, bat-batean, hiru ume ikastolan... Orain zer egin behar dut, pentsatzen nuen. Egoera dagoen moduan, gainera; lehen fabrika batetik atera eta aldamera joaten zinen eta bazegoen lana. Baina gaurko egunean ez da horrela. Egoera oso zaila dago hemen, beltza.

3. Eta orduan zure kabuz hargin lanetan hastea pentsatu zenuen.
Bai, nire kabuz jartzea pentsatzen ari naiz. Lagunentzako eta familiarrentzako lan batzuk egin ditut harriarekin; horregatik pentsatu dut nire kontu jartzea. Lan aukera handirik ez dago eta harriarekin erraztasuna daukat: armarriren bat egin, kanposaturako estelak... Inasan nengoenean pentsatu nuen nire kabuz jartzea, baina nahiko lasai nengoan Inasan eta burutik kendu zitzaidan. Beti pentsatu izan dut hasi banintz, ez banintz hasi... eta orain hasiko naiz.

4. Zure kabuz jartzeko urratsa zaila izaten ari da?
Cerdena Garalurrekin egon naiz Miriamek laguntza eman dit eta horretan nago, ea zer edo zer ateratzen den. Altsasuko Lan Bulegoan egon nintzen ere eta posible zela eta probatzeko esan zidaten.

Probatzegatik ez da ezer gertatzen. Izena aukeratzeak buruhauste handiena sortzen dit.

5. Zure kabuz jartzea krisi ekonomikoari aurre egiteko modua izan daiteke?
Bai. Nik ez daukat asmo handirik; bizitzeko eta umeak ikastolara eramateko aukera izatea bakarrik nahi dut, besterik ez.

6. Noiztik duzu harria lantzeko zaletasuna?
Nire etxea egiten hasi nintzen. Etxarriko lagun batengandik dator kit zaletasuna, Rafael Karasatorre; historialaria da eta Erdi Aroko Sakanako despopulazioa ikertzen hasi ginen, herri zaharrak topatzen eta abar eta konturatu ginen oraingo ermita direnak lehengoko elizak zirela. Harrizko eraikinak gustatu zitzaizkidan eta pentsatu nuen noizbait etxea egingo banuharrizkoa egingen nuela. Eta egin dut etxea, bueno, oraindik ez dut bukatu. Lislore bat egiten hasi nintzen eta baten eta bestearen laguntzarekin zer edo zer atera da. Harria lantzea gustatzen zait.

7. Zer nolako lanak egiten dituzu harriarekin?
Armarri batzuk egin ditut etxe-koentzako, lagunentzako, baita kanposantuetan jartzeko ere. Beheko su asko egin ditut ere.

8. Zeintzuk dira zure kabuz lan

egitearen alde onak? Eta txarrak?
Nire ustez, alde ona eta txarra izan daiteke nahi dudanean egiten dudala lana. Esan nahi dut larunbatean egin behar badut, ba eginen dudala. Eta hori ona eta txarra da.

9. Zein izan da momentu zailena? Eta politena?
Inasa itxi zenean oso gaizki pasatu nuen. Gauetan lo egin gabe, nahiz eta ora indik ez dudan ongi lo egiten. Oso gaizki pasatu nuen; etxean gaizki eta denekin gaizki. Eta bueno, lohian sartzen ari nintzen eta esan nuen "hemendik ahal dudan moduan atera behar naiz" eta harriarekin kontu honekin hastea aukeratu nuen. Ea animatzen naizen. Momentu oso polita da harria lantzen ari naizenean, eta jarrita ikusten dudanean. Niretzako oso berezia da. Betetzen nau.

10. Geldirik ez egotea izan daiteke irtenbidea?
Bai, pertsona batek zerbait egin behar duelako. Bestela lohian sartzen zara, hondoratzen zara eta animoekin gaizki ibiltzen zara. Aurrera egin behar duzu.

11. Etorkizunean pentsatzen duzu?
Bai eta ez. Norbait etortzen bada harri bat kanposanturako edo beheko su bat nahi duela, ba egingen dut. Ateratzen dena.